



Arg.: M. Albisu



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

Zorionak eta Urte Berri on!

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA



DOMINGO UNANUE, 1
(Tren geltoki parean)

☎ 88 93 25

ORDIZIA

GABONETAKO ESKAINTZA BEREZIA

Kamara konpakto bat erosteagatik, **doan** 24ko karrete bat eta errebelatua eta ordu betean kopien oparia

GALDETU ARGAZKIEN ERREBELATUAN DITUGUN PREZIO EZBERDINENGATIK

- Errebelatua ordubetea
- Errebelatua 24 ordutan
- Errebelatua 3 egunetan
- 13x18ko errebelatua kopia indizearekin (Percolux)
- Kopiatuaren kopia



 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnua: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre
Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Koldo Urrestarazu, Eduñe Albi-
zu, Aitziber Murua, Xabier Men-
diguren eta Josu Irastorza.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.800 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**GOIERRITARRA ALDIZKARIAREN
ALDEKO ZOZKETA**

SARIA: 300.000 pezetako bidaia
(1998ko irailaren 30erarte egiteko)

Zozketa notario aurrean egingo da, 1997ko abenduaren 19an.
Zenbaki saritua **GOIERRITARRA** aldizkarian argitaratuko da.
Saria jasotzeko epea: 1998-1-31 arte.
Saria derrigorrez bidaia egiten gastatu behar da.

zk. 3.762

Laguntza: 200 pezeta



K. Nagusia, 36
16 15 46 - 47
BEASAIN

3.762

Zenbaki horixe da GOIERRITARRA aldizkariak an-
tolatutako zozketan saritua izan dena. Ordiziako No-
tario aurrean egin zen zozketa, abenduaren 19an,
eguerdiko 12.00etan.

Zenbaki-saritua duenak GOIERRITARRA al-
dizkariarekin harremanetan jarri beharko du, 1998ko
urtarrilaren 31 baino lehen. Telefonoa: 88 96 12.

300.000 pezetako bidaia zozketatu da, eta Bea-
saingo Urola Bidaia-ek emango du saria. 1998ko
irailaren 30era bitartean egin beharko da bidaia. No-
ra eta zenbat lagunentzat, hori sarituak berak erabaki
beharko du.

Beraz, txartelak ondo begiratu, eta irabazleari,
zorionak!

Bide batez, lerro hauetatik eskerrik asko GOIE-
RRITARRA aldizkariaren aldeko errifak saldu eta
erosi dituzuenoi.

BOTA BERTSOA



Mikel Aranburu
(Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia)

Inuxente eguna

Doinua: Betroitarena

Egun polita baina
gaiztoa da bera
arra jotzeko ona
degu gainera
beraz entzun zazue
nere eskaera
diximuloan egin
tontoen papera
begira parera
lurrean kartera
Ah! erori zera
Ni, tira, bai zera
nahiz goiz jeiki guztiok
erortzen gera.

Beti izaten degu
onartu ezina
nahiz ta urtero jaso
broma berdina
bezperatikan egin
denok alegina
nastu behar ditugu
hainbeste ixkina
gure imagina
inuxente grina
hauze da jakina
ez neukala mina
egun batez bakarrik
izan bagina.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Beasaingo Udala

'Diario Vasco' egunkarian azalduriko berrien arabera, badirudi auzo expropiazioak ulermenaren eta adostasunaren bidean doazela. Errealitatetik ezin urrunago. Zentzugabeko kronika eta baieztapen hauek sortu ditzazketen gaizki ulertuen aurrean, kalteturiko bizilagunak erantzun beharrean aurkitzen gara.

Eskutitz honen bitartez baieztatzen dugu ez garela Udalarekin inongo akordioetara iritsi. Egia da Udalak eskaintza bat egin digula, guretzat miseri bat den eskaintza, aldatu ezean onartuko ez

dugun eskaintza, hori onartzeak, pertsona batzuk, gaur baduten etxe bat, eduki ahal izateko eskatu beharreko kredituen menpe geratzea suposatuko bailuke.

Eskaintza honek Udalaren benetako asmoak agerian uzten ditu, Udal Batzarrari bere iritzia publikoki azaltzea eskatzen diogu, honela bizi dugun injustizi eta babes ezari erantzuna ematen jakingo dugu.

Ez dago zalantzarik 37U (Porteria) auzoko bizilagunei egiten ari zaiena injustizia bat dela, inoiz ez da Beasainen antzekorik gertatu, eskubiderik gabeko hirugarren

mailako biztanle sentitzen gara. Alkatetza eta Udal Batzarra ezberdinen aholku eta hitz onak jaso ditugu azken 20 urteetan, eta gaur erasotutak sentitzen gara. Tratu berdin bat eskatzen dugu, egoera honetan egon diren beste pertsona batzuei eman zaien berbera. Konparazioak demostragarriak dira eta begibistan daude, hau da, expropiatu duenaren truke diru gutxi ordaindu eta ondoren eraikiko diren etxebizitzekin espekulatu.

Guretzat logikoena kentzen digutena ematea izango litzateke, edo ezinbestean, prezio justu bat ordaintzea, eta ez beraiek "justiprecio"

deitzen diotenaren arabera. Ez dugu asko eskatzen, baina dagoeneko galtzekorik ez dugunez edozertarako prest gaude.

Une honetan Udalaren eskaintzen zerrenda hemen azaltzea ez zaigu egokia iruditzen, horretarako astia izango dugu. Baina sortu daitezkeen zurrumurru eta ideia guztien aurrean, eskaintza horren nondik norakoak galdetzera animatzen zaituztegu. Gu behintzat erantzuteko prest gaude.

Eligio Mendoza, Juan Inazio Iraola, Roberto Begue, Maria Pilar Arraztio, J. Rodriguez eta Maite Bara (Beasain)

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

IBAI-ONDO

ZURGINTZA

ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543 BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 88 87 02

BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrocientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa

20491 LEABURU

Tfnoa.: 67 36 11

Faxa: 67 36 55

Argazkiaren honen ezaugarriak:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA



Hator, hator

'Berriro igo nauzu' nire nobela kaleratu zenean, batek baino gehiagok galdetu zidan Joxe Migel Azurmendiren kasua hartu al nuen oinarritzat; ez zen horrela, lehenago idatzia bainuen nirea, baina badute antz pixka bat azalean, kartzelan ia 18 urte eman dituen gizon baten itzulera kontatzen baitzen han.

Liburu batek, horrelako eragin magikorik balu, oraintxe bertan hasiko nintzateke 500 nobela idazten, giltzapean dauzkagun anai-arreba guztiak etxera ekartzeko. Asmo apalagoa du artikulu honek: 24 goierritar, gogoratu nahi nituzke, bakardadezko turroia jan beharko dutenak gabonetan; eta beste horrenbeste etxetan, aulki bat hutsik mahaian, malkoa begian.

Ataungo Joxe eta Karlos; Beasaingo Jokin, Txemi, Josu, Juan Mari eta Xabier; Ezkio-Itsasoko Gonzalo, Pilar eta Mertxe; Legorretako Patxi; Ordiziako Arantxa, Jokin, Antton, Eujenio, Agustin, Pakito, Kepa, Rufino, Maria Jesus, Josu, Asier eta Andoni; eta Ormaiztegiko Mikel.

Zatozte denok etxera, gaztaina ximelak jan eta txanpaina edatera. Zain gaude denak. Egin dezagun ahalegina.

Xabier Mendiguren Elizegi

Olentzerok ala Erregeek ekartzen dizkizute opariak?



Xabat Garmendia

13 urte, ikaslea
zaldibitarra

Orain dela gutxira arte Olentzerok bakarrik ekartzen zizkidan. Orain Erregeek ere bai. Opari guztiak batera ekarri beharrean, banatu egiten ditugu orain.

Izaro Garmendia

28 urte, musikaria
zaldibitarra

Ez gara erregalo zaleak izan baina ekartzekotan Olentzerok ekarri izan digu. Ez dut ilusio berezirik izaten, beharrezkoa eta kitto. Gaur egun exageratu xamar dago asuntua.



Jose Gorostiza

64 urte, erretiratua
Larrauldar Zaldibiaratua

Gurean gaur egun Olentzero izaten da. Umeengatik hartu zen ohitura hori, opariekin jolasteko denbora gehiago izan zezaten. Guk bestela, gure garaian, Erregeak izaten genituen.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 16 02 48
ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Urtarrilak 15,
21:00etan, Beasaingo Usur-
be Antzokian

BEASAIN:

'La teniente O'Neill'.
Osteguna 25, 19:30 - 22:15;
ostirala 26: 22:15.



'Full monty'. Larunbata
27: 19:30 - 22:15; igandea
28: 17:00 - 19:30 - 22:15;
astelehena 29: 19:30 -
22:15.

ORDIZIA:

'Carne tremula'. Larun-
bata 27: 19:30 - 22:15. Igan-
dea 28: 19:30 - 22:15. Aste-
lehena: 19:30.

'La ceremonia'

Claude Chabrol, (Fra-Ale,
1995)

Donostiako azken Zine-
manaldian saritua 'Rien ne
va plus' lanagatik eta hain-
bat filme garrantzitsuen egi-
lea, 'Infernua' eta 'Un asun-
to de mujeres', besteak bes-
te, Chabrol zuzendari fran-
tsesak bere azken aurreko
lanean Sophie izeneko ema-
kume baten istorio beltza du
gai. Burges familia baten
neskame eta aitortu gabeko
analfabetismoak harrapatua,
Sophiesek izugarrikeria
pentsaezinak burutuko ditu
nagusien etxean, Jeanne
bere adiskidearen laguntzaz.

Chabrolek bere gai kuttu-
nak jorratuko ditu oraingoan
ere, hala nola, hilketen ingu-
ruko gorabeherak, probin-
tziatiko burgesiaren kritika
eta batik bat emakumeen
mundua; izan ere, emaku-
meak dira filmaren motore,
eta haien interpretazio bikai-
nak bultzatuta eta filmaketa
borobilarri esker historiaren
tentsioa, ikuslearen jakinmi-
narekin batera handituz doa
filmea aurrera doan neu-
rrian... bukaera harrigarri
batera iristeko.

MUSIKA

ORDIZIA:

Abenduak 31, Ohikoa
den 'Kattalin' doinua joz
Beti Argi banda eta Lagun-
tasuna Errondaila kaleratu-
ko dira, 19:30etan.

Urtarrilak 6, Txistula-
rien Diana, 10:30etan.

Urtarrilak 6, Santa Ana
abesbatzak lagundutako
Meza Nagusia, 11:00etan.

BESTELAKOAK

ORDIZIA:

Abenduak 29 eta 30,
Arrate Leundaren eskutik,
'Gabonetan ipuin kontari'
zikloaren barruan ipuin
kontakizunak, 5-8 urte bi-
tarteko haurrentzat, Barre-
nan, goizeko 11.00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Martxoaren 13a arte,
IV. Aterpe pintura lehiake-
tan aurkeztutako lanen era-
kusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Abenduaren 31ra, Ikas-
tetxeetako ikasleek eginda-
ko postalen erakusketa, Ba-
rrenan.

ZEGAMA:

**Urtarrilaren 7ra bitar-
tean,** 'Buztingintzaren az-
tarnak, Gregorio Aramen-
diren omenez' zeramika
erakusketa, Eskola Zaha-
rrean.

ZERAIN:

**Urtarrilaren 6ra bitar-
tean,** Euskal Herriko 28 ar-
tisten lanak ikusgai eta sal-
gai, Kultur Etxean.

KIROLA

BEASAIN:

Abenduak 31: San Sil-
bestre krosa, 12:00etan.

ORDIZIA:

Abenduak 29, 'XV.
Eguberrietako Aldundiko
Nazioarteko Sari Nagusia,
Ordizia 97', Majori Kirol-
degiko igerileku estalian;
16:30etan.

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 88 82 67 **ORDIZIA**

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA**

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordua: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22
Oriamendi, 3 - 2. ezk. - **BEASAIN**

ARTEKA

- Jkastaroak
- Esku lanak
- Opariak
- Enkarguzko lanak

☎ 65 55 77 ☎ 88 40 56
Nafarroa Etorb. 10 **Andra Mari, 5**
TOLOSA BEASAIN



Alpe **MASTER**

**Elektragaiak
Sukaldeko altzariak**

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 **BEASAIN**

Abenduak 31, XX. San Silbestre krossa, 18:30etan hasita.

Urtarrilak 3, 4 eta 5, Errege eguneko VII. Esku-baloi Txapelketa, Jesus M. Caro 'Txeru' oroimenez, Majori kiroldegian, 10:30etan eta 16:30etan hasita.

Gabonetako haurrentzat parkeak

Beasainen eta Ordizian haur parkeak izango dira.

Beasainen, urtarrilarren 2, 3 eta 5ean, Batzokiko pelotalekuan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. **Ordizian,** urtarrilarren 2an eta 3an, Plaza Nagusian, 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Seguran, kale-kalean, garage eta guzti. Deitu 18 74 88 telefonora.

☐ Alokatzeko baserri baten bila gabiltza. Berdin zai-gu zein egoeretan dagoen. Deitu goizetan: 88 28 27.

Salerosketak:

☐ Kerosenozko berogailua salgai. Deitu 72 35 04 telefonora, iluntzetan.

☐ Pottoka zaldia salgai. Gaietan ibiltzeko hezita. 161828.

☐ Bi metroko tresillo ia berria salgai. 20:00etatik 22:00etara deitu: 88 96 87.

☐ 5 erregistroko esku soinu salgai. 88 83 18. Eguerdietan edo gaueetan deitu.

☐ Metal zone MT2 distortsio pedala eta Peabe TKO baxu anplia salgai, 80 batio-koa. 88 47 68. Jon.

☐ Rieju motorra salgai. 5 abiaduratakoa. 88 51 06.

☐ Vanette furgoneta sal-

gai, kanpinerako prestatta, sukaldea, hozgailua, ohea... 88 20 37

Bestelakoak:

☐ Altzari zaharrak botatzeko baldin badauzkazu, gu joango gara jasotzera. Eneko. 88 15 73.

☐ San Miguel Arcangel kontsultorioa: bidentzia, kartak botatzea, aura garbiketa eta zazpi potentziatako bainua. 16 06 79 - 88 99 83.

Zerbait saldu, erosi, eskaini... nahi baduzu, hau da zure txokoa.

124 p.k. ORDIZIA Tfnoa: 88 96 12 - Faxa: 88 27 19



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA

Urdaneta, 41

☎ 161606

ORDIZIA

CGZ GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Uste Berrin!

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 **ORDIZIA**

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN


KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

**Barandiaran
ZERAMIKAK**

☎ 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

ERREZETA



Josune Urkola
Lazkaoetxe jatetxea
Zaldibia

MUTURRAK SALTSAN

Txekor muturrak irakiten jarri, zikinak ateratzeko. Garbitu eta dituen ileak suarekin erre. Ondoren muturrak egosten jarri 2 porru, 2 tipula, 2 azenario, 2 tomate gorri xamar, baratzuri buru bat eta litro erdi bat ardo txurirekin. Gatza edo starluxa bota. Egosten 3 orduz eduki, poliki-poliki. Muturrak atera, xerratan ebaki eta arrautz-irinetan pasatu.

Muturrak egosteko erabili dugun urarekin egingo dugu saltsa. Horretarako, 3 tipula mehe xamar moztu, bi azenario eta gatza bota. Potxatutakoan irin eta ardo txuri piska bat bota, eta ondoren, lehendik daukagun ura gehitu. Gero irabiagailu edo batidorarekin ondo txikitu eta pasadorean pasatu. Muturrak saltsan sartu eta irakiten duenean, jateko prest dago.

AHOLKUA

Epoc: Biriketako Gaixotasun Butxatzailea



Josu Irastorza
Zaindu Fisioterapia
Gabinetea

Epoc terminoarekin bi gaixotasun biltzen dira, bata enfisema eta bestea bronkitis kronikoa; bietan aire-fluxuaren mugaketa ematen da.

Gaixotasun hauek azaltzearen arrazoi garrantzitsuenetariko bat tabakoa dugu, Epoc kasuen %80-90ean. Normalean erretzen hasi eta 30-35 urteko epean azaltzen dira. Gaixo gehienak 45 urte baino gehiagoko gizonezkoak dira baina emakumezkoak erretzen hasi zirenetik Epoc-aren eragina beraiengan igo egin da.

Bronkitis kronikoaren ezaugarria eguneroko ez-tul produktiboa dugu eta

gutxienez 3 hilabetez ematen da 2 urtez jarraian. Ez-tul produktiboa hau esnatzerakoan ematen da eta askotan gaixoak ez dio garrantzirik ematen tabakoaren ondorio bat delakoaren ustetan. Gaixotasuna aurrera doan heinean gaixoa disneikoagoa bihurtzen da, hau da, arnasestuka ibiltzen da. Zoritxarrez bronkitis kronikoa duten gaixoei bere eguneroko bizi jarduerak, sintomen arabera moldatzen dituzte eta soilik bere egoera larria denean jotzen dute medikua-
rengana.

Enfisemaren aurreneko sintoma arnasestua (disnea) izaten da eta orokorrean kasu honetan ez-tul gutxi izaten da eta ia mukirik gabekoa. Arnas frekuentzia altua dute, arnas botatzeko fase luzea eta ez-painak erdi itxita dituztelarik. Enfisema duten gaixo gehienak meharrek daude kaloria asko erre behar baitituzte arnasa hartzeko saiakeran ez direlako goseak izaten.

Tratamendua bietan antzekoa izaten da baina bera eraginkorra izan dadin bete beharreko baldintza tabakoa uztea da. Tratamendua honetan datza:

- botika inhalatuak (espraiak)
- arnas ariketan irakasketa
- arnas fisioterapia (mukiak botatzen laguntzeko, arnasestua gutxitzeko...)
- enfisemaren kasuan dieta proteina eta kalorietan aberatsa

Aholku batzuk:

- 2,5 litro ur gutxienez edan egunero mukiak askatzeko, debekatuta egon ezean bihotzeko arazoak direla medio.
- mukiak botatzeko ariketak lotara joan aurretik eta jaikitzerakoan egin
- otorduak txikiak eta 5-6 alditan banatu
- bazkal aurretik atsedean hartu, bazkaria bera ere oso neketsua suerta baidateke.

Garbitasunak
OXEPI
☎ 88 96 67 ZALDIBIA

ARRIZAR BODEGOLA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

Dinex

- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoien tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
☎ 88 9350 Faxes: 880688

GABIONA
Rodamientos, S. A.

Biltegi eta bulegoak:
Goierrri k. 4
Goierrri K. z/g

ORDIZIA

☎ 88 45 00 Faxes: 88 99 06

Eguberri zoriontsuak guztioi!

BEASAINEN URBIETA ZENTROA INAUGURATU ZEN ABENDUAREN 12an Eskualdeko INEM eta CAISS bulegoak eta arte plastikoen tailerrak bertan kokatu dira

Abenduaren 12an ofizialki inauguratu ziren Beasainen Urbieta zentroa eta Gipuzkoa plaza. Urbieta zentroan (lehen abere-hiltegia zena) kokatu dira INEMen Eskualdeko Bulegoa, CAISSen bulegoa (Gizarte Segurantzako Informazio eta Arretarako Zentroa) eta arte plastikoen zentroa. Horrez gain, bide berri bat eta 17 metroko plataforma duen zubi berria ere egin dira. Inaugurazioan, Beasaingo Udaleko agintariak, Goierriko hainbat alkate eta INEMen Zuzendari Orokorra den Maria Eugenia Martin izan ziren.



Ohorezko aureskua eskaini zien dantzari batek, bertaraturako agintariei.

Gipuzkoa plaza balionitza izango da: 300 tokiko aparkalekua, azoka-barruti gisa eta hainbat motatako iharduerak egiteko. Urbanizazioaren kostua 180 milioikoa izan da.

Era berean, garai bateko abere-hiltegia zerbitzu-erakina bilakatu da orain. Batetik, Beasaingo Arte Plastikoen zentroa da: pintura, zeramika, argazkigintza, bideo eta irrati tailerrak bertan direla eta areto balioa-

nitza ere baduena. Bestetik, Gizarte Segurantzako eskualdeko bulegoa. Bere zerbitzuak eskualde osoko enpresei eta Gizarte Segurantzako prestatzioen onuradunei eskainiko dizkie, guztira, beraz, 69.863 pertsonako biztanleria hartzen duten 29 udalerriren zerbitzura egongo da. Eta azkenik, INEMen eskualdeko bulegoa. Beren kokalekua lehengo 150 m²etatik 680 m² izatera igaro da eta 38.889 pertsonako biztanle-

ria hartzen duten 18 udalerriren zerbitzura egongo da.

Zerbitzu herria

Jon Jauregi Beasaingo alkateak adierazi zuenez, "iharduera hauek guztiak, herriaren merkatal eta zerbitzu izaera indartzea dakarte eta, beraz, hiriaren eta ekonomia alorraren garapen orekatua. Bestetik herriaz gaindiko lan-esparrua duten erakunde eta entitateen zerbitzuak bertan eskainiz, eskualderi eskaintzen zaizkion zerbitzuen hobekuntza lortzen dugu eta, ondorioz, herriaren eta eskualdearen beraren bizitza-kalitatea hobetzen dugu".

CAISS bulegoak bi telefono ditu guztion zerbitzura. Batetik 16 22 70, arreta pertsonalizatua nahi izanez gero ordua hartzeko. Bestetik, informazio-zerbitzura, 900 16 65 65, doako telefonoa



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Zorionaĳ eta Urte Berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



Proba itzazu
"Beasaingo Martintxoak"

Eguberri zoriontsuak!

Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19
GOZODENDA ☎ 88 82 37 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

'Ordiziara': Zigorraren hiru laurdena beteta duten ordiziar presoek askatasuna eskatzeko Plataforma

Edozein azterketa politiko albo batera utzita, giza eskubideen aldetik, onartezina, bortitza eta mingarria dela iruditzen zaiela eta, sortu da 'Eugenio, Agustin, Antxon, Arantxa eta Jokin, Ordiziara' Plataforma. Hain zuzen ere, kartzela zigorraren hiru-laurdenak beteak dituztelako kalean, etxean egon beharko luketeen ordiziarrek dira Eugenio Irastorza, Agustin Cortes, Antxon Garcia del Molino, Arantxa Karrera eta Jokin Zubeldia. "Lege hauste honekin bukatzea exigitzen dugu", diote.

Sortu berria den Platafor-
ma honek, legearen erabate-



Plataformako hainbat kide Barrenako aurkezpenean

ko aplikazioa eskatzen du, legearen arabera, jadanik kalean egon behar bailukete 5 ordiziar hauek. "Kode Penalak 90. artikulua baldintzapeko askatasuna honela zehazten du: kondena-
ren azken garain aurkitzea; zigorraren hiru laurdenak beteak izatea; jarrera ona izateagatik hau merezi izatea; eta kalean bizi ondraitua eramango dela bermatzea. Bost ordiziar hauen kasuan ez da legea inondik betetzen", plataformakideek diotenez.

Eugenio Irastorza eta

Agustin Cortes 1980ko martxoan kartzelaratu zituzten eta 1995eko martxoaren 10etik kalean behar zuketenen.

Antxon Garcia del Molino 1981ean kartzelaratu zuten eta legearen arabera 1996ko azaroaren 25etik kalean egon beharko luke. Garcia del Molinok 65 urte ditu eta Iñaki Mendiguren ordiziar medikuak adierazi zuenez, "gaixotasun larria du eta gero eta zailagoa gertatzen da azterketa eta tratamendu egokiak jartzea".

Arantxa Karrera 1982an kartzelaratu zuten eta 1996ko urtarrilaren 22tik kalean egon behar luke. Jokin Zubeldia ere 1982an kartzelaratu zuten eta 1997 honetan baldintzapeko askatasunean behar zukeen.

Plurala

Abenduaren 20an aurkeztu zen Plataforma jendaurrean. "Plurala, ideologiak, joera politikoak eta koloreak bateratuta" osatu da Plataforma. Kazetariak, idazleak, abeslariak, sindikalistak, intsumituak, irakasleak, merkatariak, etxekoandreak... daude bertan, guztira 50en bat lagunuen atxekimendua lortu dute. Dena den, ordiziar gehiagoren babesa nahiko lukete.

Datozen hilabeteotan, ordiziar guztien kontzientzia esnatzea lortu nahi dute. Horretarako epe labur batean hainbat ekimen eta ekitaldi antolatzeke asmoa dute. Lehenengo pausoa, Plataforma bera aurkeztea izan da.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 88 40 57 ☎ 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
 Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24
 BILTEGIA:
 Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70
BEASAIN

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

5: Erregeen kabal-gatak izan ziren Goierri-ko herri ezberdinetan.



10: Josune Bereziartua eskalatzaile beasaindarrak Euskal Herriko Mendi Federazioaren saria jaso zuen, 1996an egindako denboraldi onarengatik.

12: Astotxo eguna ospatu zen Lazkaon.

18: Ikurrina legeztatu zela 20 urte bete ziren egun honetan, eta Goierriko udal-letxe gehienetan, ikurrinak jarri ziren balkoietan.



19: Zugaitz Ayuso Itsasondoko txirrindulariak Euskadiko ziklo-kros selekzioarekin Espainiako ziklo-kros txapelketan bigarren egin zuen.



10: Amaia Insausti Olaberriko korrikalariak Gipuzkoako Kros txapelketa irabazi zuen Orion.

24tik apirilaren 25era bitartean, **'Antzerki Garaia'** programa izan zen Ordizian eta Beasainen, 3. urtez segidan, bi udalek antolatuta. Lehenengo antzez-lana, estreinua izan zen gainera: 'Txalo' taldearen 'Xagu tranpa'.

25: Euskadiko Orkestra Sinfonikoak orkestra eskaini zuen Beasaingo Usurbe Antzokian.

25: Goma gaineko Euskadiko **Sokatira txapelketa** jokatu zen Legorretako pilotalekuan.

25-26: Beasaingo **Garin** auzoko jaiak ospatu ziren.

26: Segurako **San Sebastian** ermittan, santu beraren omenezko, jaiak izan zen. Haritzeko egur trinkozko aldare berria jarri zuten.

26: Idiazabalgo **Herri krosa** jokatu zen. Nagusietan, emakumezkoetan Usoa Sorazuk irabazi zuen; gizonezkoetan Manu Hurtadok.

31: Irakaskuntza ertainetako jaiak ospatu zen Ordiziako Jakintza ikastolan.


ORDIZIAKO



Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa



Taldekoa

88 23 00

ORDIZIA

MIAMI
kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

MG
UAR

Argiztapenak

Berrikuntzak orokorrean

**Iluminazio denda
ireki berria**

Euskal Pilota, 4 eta 5

eta faxa: 88 86 88

mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

KiTTó

EDARITEGIA

**ZORIONAK ETA URTE
BERRI ON GUZTIOI!**

Iturralde, 1
BEASAIN

2-9: Zaldibiako **Pa-rroki elkarteak** gosearen aurkako kanpaina egin zuen. Jantziak, garbikariak, oinetakoak, janaria eta abar erruz bildu zen eta horiez gain 343.270 pezeta ere bai.

2: VII. **Beasaingo Idazlan lehiaketako** sari-banaketa egin zen.



3: Urtarrilaren 31tik 4ra bitartean, **San Blas** jaiak ospatu ziren Idiazabalen.

3-8: Beasaingo Alfil Xakelari elkarteak antolatutako **Xake astea** izan zen. 8an Igo Beasain Hiria Xake txapelketa irekia jokatu zen.

4: **Santa Ageda eskeak** izan ziren Goierriko hainbat herritan.

5: **Loinazko San Martin** eguna ospatu zen Beasainen. Bere heriotzaren 4. mendeurrena ospatu zen gainera. Ohiturari jarraituz, Odolki kofradiak XII. Biltzar Nagusia egin zuten. Ot-sailaren 5ean jaiotako beasaindarren urteroko bazkaria ere egin zen.

5: Beasaingo **Fermin Galvan** ertzaina hil zen, pistolarekin bere buruari tiro egin ondoren.

7: Goiekik, **Goierri** eza-gutzeko lau pakete turistiko edo bisita gidatu aurkeztu zituen: 1.- Aitzgorri-Santiago bidea, Seguran eta Zegaman geldialdia eginez. 2.- Aralar eta Josemiel Barandiaran, Lazkaon geldituz. 3.- Segurako eta Ordiziako kasko historikoak eta Beasaingo Igartzako gune historikoa. 4.- Gaztaren ibilbidea, Idiazabal, Ordizia, Gaboria eta Zerain.

8: Euskadiko txapelketa irabazi zuen, pisu jaurtikitant, **Iker Sukia** ataundarrak.



8: **Jokin Mujika** txirrindulari ohia omendu zuen Itsasondoko herriak.

15-23: **Ordiziako Gaztetxeak** XI. urtemuga ospatzeko hainbat ekin-tza antolatu zituen.

21: **Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataformak** bilera egin zuen Altsasun.

21-22: Goierriko hainbat udaletxetan **itxialdiak** egin ziren, "HBren Mahai Nazionalaren kartzeleratzea" salatzeke.

22: **Segurako EAJ-ren Batzokia eta Kutxaren bulegoa** erretzen saiatu ziren.



22: Seguran jokatu zen **Goierriko bola txapelketan** German Gereñu izan zen irabazlea.

23: **Gilberto Juaristik** irabazi zuen Zerainen jokatu zen Endika Alustiza zenaren bola saioa.

24: Ustez bi ertzaina hil zituen **Mikel Otegi** Itsasondoko gaztearen epaiketa hasi zen. Zinpeko Epaimahaiak epaitu zuen.

26: Idiazabalgo **Zirika irratia**k, Emakundek komunikabideentzat antolatutako lehiaketan irabazitako saria jaso zuen.



AUTO ESKOLA

Urte berri on!

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

Urte Berri on!

ARANA, 1
88 93 88
BEASAIN

LURRAZPIKO

JAIA !!



Urte Berri on!

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN
Garagarza, 5
Etxezarreta kalea
ORDIZIA

1: **Loinaz Txirrindulari Elkartea** aurkeztu zen Beasaingo San Martin elizan.

2: **IV. Elorri Idazlan lehiaketako** sari bana-keta egin zen Seguran.

3-9: Segurako Elorri Kultur Elkartek eta Urruñako Bertoli elkartek **'II. Iparra-Hegoa'** aste kulturala antolatu zuten.



5: **Goiturrek** (Goiekiko 'Ekimen Turistikoaren Zentrua') Goierriko baliabide turistikoaren berri emango duen informazio bulegoa zabaldu zuen Ordiziako Plaza Nagusiko Abaria etxean. Horrekin batera, Aste Santua oinarri harturik, hainbat bi-daia turistiko antolatu zituen.

7: HBren Mahai Nazionalaren kartzeleratzea salatze-ko **greba orokorra** deitu zuen HBk. Erantzun zabalda izan zuen Goierri.

25: Idiazabalgo **EAJ-ren Batzokia** erasotu zuten. Herritarrek sua itzaldu ondoren, hainbat herritar, HBko zinegotziak etxetik aterarazi eta gertaera lekura eraman zituzten.

8: **Nazioarteko Emakume Langilearen** eguna ospatu zen Goierriko hainbat herritan.

9: 7 eta 15 urte bitarteko-**en VI. Auresku Txapelketa** jokatu zen Beasainen. 7-11 urtekoen mailan, Iñigo Oiarbide beasaindarra izan zen irabazle. 12-15 bitarteko-**en** mailan, Urko Mitxelena oreretarra.

10: Ataun San Martingo plazan, **astelehene-tan, azoka** egiten hasi ziren.



10: Ordiziako **Lasa harategiak**, Lumagorri eta Eusko Labelak antolatu-riko erakusleho lehiaketa-ko saria jaso zuen. Erakuslehoia apaintzeko oinarria Lumagorri baserriko oilas-koa zen.

10-20: Ordiziako Udaletxeko Ongizate Sailak, **Alzheimer gaixoen zaindariantzako ikastaroa** antolatu zuen.

11: **'Esparru programa'** aurkeztu zuen Gipuzkoako Diputazioak, EUDELein (Gipuzkoako Udalerrien Euskal Elkartea) eta Goiekirekin elkarlanean. 2011. urteari begira Goierri nolakoa izango den aurriku-si eta ondorioz, lanpostuak zein arlo edo esparrutan sor daitezkeen argitu zituzten.

13: **Mikel Otegi** itsa-sondoarra libre uzteko erabakia eman zuen Zinpeko Epaimahaiak. Libre gelditu ondoren, astero azaldu behar izan zuen Otegik epaile-aren aurrean eta pasaportea ere kendu zioten.

17: AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko **'Korrika 10'** Goierri-**ra** etorri zen. Korrikaren inguruan, ekitaldi ugari egin zen.

19-23: Ordiziako erre-tiratuek **San Jose fes-ta** antolatu zuten.

20: **Bartolo Aierbe** idazle gaintzarra hil zen. Bi liburu idatzi zituen: 'Nere mundualdia' eta hil baino lehenxeago, 'Zaarrak berri-tuz'.

20: **'Euskal preso-ak Euskal Herrira'** herri ekimena aurkeztu zuen Zaldibian. Herriko Emakume taldeak, Jarraik, dantzariak, Elkarrik, Senideak-ek, Gestorak, HB Udalgintza taldeak, txarangak eta Zubi Buru elkartearen atxi-kimendua du talde honek eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen du.

21: Beasaingo **Igartza jauregiaren** hegoaldeko paretaren zatia erori egin zen.

25: Goiturrek **Segura-ko Aste Santuko prozesioari** buruzko liburuxka aurkeztu zuen.

27: Ostegun Santuan, **Prozesioa** izan zen Seguran.

29: Goierriko EGik **Aberri Egunaren bezperan** txalapartaz lagunduriko festa egin zuen Usurbe mendiaren tontorrean.

30: Ordizian **sabotai ekintza ugari** izan zen: Udaletxea, Batzokia, Grupo Vitalicio aseguru-etxea eta Kutxaren bulegoa erasotu zituzten.

31: **Ines Velasco** beasaindarra hil zen Arakil-Uharten izan zen tren istripuan.

LIRAIN
PUB

Urte Berri on!

Etkezaretza, 5

ORDIZIA



2: Idiazabal Gazta-ren denboraldi berria hasi zen ofizialki. Hilario Arbelaitz sukaldariak ebaki zuen gazta.

5: Goierriko bola txapelketa **Gilberto Juaristi** legazpiarrak irabazi zuen. Bigarren Segurako Xepeñño Agirre izan zen.

5: Olaberriako Zaharren egoitzak bi urte bete zituen.

7: Juan Jose Arrieta segurarra eta **Florencio Gomez** beasaindarra lan istripuz hil ziren Irurena galdaragintza enpresan. Habe bat erori zitzaion gainera.

11-15: Igo Udaberri Gaztea antolatu zuen Beasaingo Udaleko Gazteria eta Kirol batzordeak, Antizar Triatloi taldearen, Gazte Asanbladaren, Goieniz zine-klubaren, Gure Eskuetan-en, Kimuak-en eta Txindoki Institutuaren laguntzaz. Gazte talde desberdinak elkartu eta hainbat ekitaldi burutu zituzten.

12: GOIERRITARRA aldizkaria kaleratzen duen Goierritarrak Kultur Elkar-teak lehendakari berria izendatu zuen: **Aitzol Asurmendi** zegamarra.

12-20: 'Ahoz aho, belaunez belaun' euskararen transmisioa hel-

buru zuen erakusketa izan zen Beasaingo Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan. Erakusketarekin batera, as-tean zehar, hainbat ekitaldi izan zen. Tartean Oskorri taldearen 'Pub ibiltaria' ikuskizuna.

13-20: Udaleko Kultur-batzordeak eta Osinalde elkarteak antolaturik **Kultur astea** izan zen Gabi-rian.



14: Anastasio Albi-su lazkaotar apaiz euskal-zalea hil zen, 82 urte zituela.

16: Juan Mari Ola-no HBren Mahai Naziona-leko gaintzarra libre gelditu zen ETaren Alternatiba De-mokratikoa deritzon bideoa kaleratzeagatik kartzelan ia bi hilabete egin ondoren.

16-25: Maizpide Eus-kal-tegiak eta Goierriko Euskal Eskolak elkarrekin antolaturiko **Kultural-dia 97** izan zen. VII. edi-zioa izan zuen.

17: Goierriren ga-rraioaren birranto-

laketa plana aurkeztu zuen Jose Julian Irizar, Gi-puzkoako Diputazioko Ga-rraio eta Errepide diputa-tuak. Ordurarte lau enpre-sek eskaintzen zuten Goie-rrin autobus zerbitzua: Pesa, Sarasola, Etxabe eta Gaiara. Azken bi hauek, Goierrial-dea Bus enpresa bakarra osatu.

18: Jose Kruz La-rrañaga Beasaingo Indar enpresako burua auto istri-puz hil zen 56 urte zituela.

19: Xabier Sukiak irabazi zuen Gabiriako Osi-nalde elkarteke XXVI. Bertsolari Gazteen txapel-keta.

20: Segurako **Santa Engrazi** ermitan herriko eta inguruko herrietako emakumeek urak eta haziak bedeinkatu zituzten.

23-26: Itsason-don Kultur astea an-tolatu zuen Udalak.

25: San Prudentzio jaiak hasi ziren Lazkaon.

26: Ordizian izan ziren kale istiluak salatzeke, **manifestazioa** egin zuten Ordizian, Udaleko EAJ, EA, PSE-EE, PP eta IU-EB alderdiek deituta.

26: Ataungo Udalak **Sa-rako Udalaren** bisita jaso zuen. Joxe Migel Ba-randiaran erbestean egon

zen herria da Lapurdiko Sa-ra.

26: Maite Telleria pisu-jaurtitzaila segurarra Gipuzkoako txapeldun ge-ratu zen kadete mailan.

27: Dulce Maria Loinaz poeta kubatarra hil zen. Beasaindar jatorriko zen poeta.

27: Egun honetan hasi zen Beasainen, 'Loinatz 97' elkarteak antolaturiko **He-rriko Elkarte** edo sozie-dadeen arteko harremana eta dinamika sortzeko eki-mena.

27: Korrikaldi apustua egin zen Gain-tzan. 29 urteko Migel Mari Berekoetxeak 10 kilometro-ko ibilbidea eta 51 urteko Bitoriano Garmendiak 6koa egin behar izan zuten. Zaha-rrenak irabazi zuen.

29: Gerriko Ikerlan Sari-ketako beste hiru liburu aur-keztu zituzten Lazkaoko Udaletxean: Joxe Migel Azurmendiren '**Ataungo euskara**'; Nekane Ur-dangarin eta Leire Mundua-te ama-alaben '**Karobiak Ataunen**'; eta Xabier Azurmendi zenaren '**San Adrian eta inguruen kondaira**'.

30: Maiatzaren 3rarte lu-zatu ziren Olaberriako **Iu-rre auzoko jaiak**.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 88 95 76
ORDIZIA

- * Tximini eta egurrezko ekonomikak
- * Berogailuak
- * Iturgintza
- * Zeramika erakusketa
- * Bainuko altzariak
- * Erreforma osoak



4: Dantzari Txiki eguna ospatu zen Zaldibian.

9: William A. Christian antropologoaren **'Ezkio-ko agerpenak'** liburua-
ren aurkezpena egin zen Ez-
kio-Itsason. 1931n Ezkion
izandako Ama Birjinaren
agerpenen historiak biltzen
ditu.

8-11: Legorretan
Asentzio jaiak ospatu
ziren.



9-11: **Ertaroko azoka** izan zen Ordizian.

9-18: Beasainen **Loi-
natz jaiak** ospatu ziren.

10: **'Insausti ha-
rria'** txapelketaren lehen
edizioa jokatu zen Legorre-
tan.

11: **Paskual Larra-
ñaga** Ormaiztegiko txistu-
laria omendu zuten.

11: **Santa Barbara**
eguna ospatu zen Segur-
an. **Altzagarate au-
zoko** jaia ospatu zen Alt-
zagan.

15: **San Ixidro** egune-
an ardo partiketa eta afaria
izan zen Seguran.

16: **Gipuzkoako**
Batzar Nagusiak Be-
saingo Udaletxean egin zu-
ten ez-ohizko bilera oroko-
rra.

18: **Mieltxo Sarale-
gi** harrijasotzailea 326 kilo-
ko harria jasotzen saiatu zen
Beasainen.

18: **Xabier Azur-
mendi** zegamarrak Ber-
garako dantza solteko txap-
elketa irabazi zuen 15 ur-
tez azpikoen atalean.

19: **Etxegarateren**
**Bikoizketaren Alde-
ko Plataformak** ez
zuen ontzat hartu Gipuzkoa-
ko Diputazioak Eibar-Gas-
teiz errepidea "lehentasu-
nezkoa" zela esatea eta au-
rrekontuak bi proiektuetara-
ko banatzea.

18: **K2** igotzeko asmotan
joan Joxe Ramon Agirre
'Marron' ataundarra eta Mi-
kel Saez de Urabain ordizia-
rra. Igo gabe itzuli ziren
Goierrira.



21: **Jose Antonio**
Ardanza lehendakaria,
**Mari Karmen Gar-
mendia, Javier Re-
tegi** eta **Roman Sudu-
pe** Goierriin. Zerainen 'Ze-
rain Dezagun Fundazioa'-
ren aurkezpenean parte har-
tu zuten.

23: **Gipuzkoako Es-
kolarteko bertsolari**
txapelketan Goierriko
taldeak, txikien taldean, bi-
garren egin zuen. 15-18 urte
bitartekoetan, Ekaitz Goi-
koetxeak ere bigarren egin
zuen. Bertsopaperetan
Alaitz Sarasola lehenengoa
izan zen handienen mailan.

25: **Xabier Azur-
mendi** poeta zegamarra-
ren omenezko meza ospatu
zen Zegamako Santu Espiri-
tuko ermitan.

25: Idiazabaldarrek **San**
Adriani bisitatu egin
ziren, herriak Partzonerian
duen parte hartzea segurtat-
zeko.

28: **Pryca** merkatal-
zentrua zabaldu zuten Ola-
berrian. 3.500 milioi pezeta-
ko inbertsioa egin zen eta
260 lanpostu sortu ziren.

30: **Sasieta Manko-
munitateak** eskola arte-
ko lehiaketan sariak banatu
zituen. Kartel lehiaketa Or-
diziako Urdaneta ikastetxe-
ak irabazi zuen; minimiza-
zioaren hamar legeak atale-
an, Urretxu-Zumarragako
Ikastola izan zen garaile; eta
Berzikli saria Ormaiztegiko
San Andres herri-eskola-
rentzat izan zen.

30: **Beasaingo An-
tzerki Tailerrak** 'Bost
duroko opera' obra aurkeztu
zuen Beasaingo Usurbe
Antzokian.

31: **Aristeo Ruizen**
omenezko futbol txapelketa
jokatu zen Beasaingo Loi-
natz futbol zelaian. Infantil
mailako gazteek 7 jokalariz
osatutako futbol sisteman
jokatu zuten. Aurreko egu-
netan, futbol giroko bi hi-
tzaldi izan ziren. Tartean,
Javier Clemente Espainiako
selekzioko entrenatzailea
izan zen Beasainen.

31: Goierriko eta Tolosal-
deko **Herri Batasu-
nak** Larraitzen bi eguneta-
rako antolatu zuten Alterna-
tiba Demokratikoaren alde-
ko festa bertan behera geldit-
u zen, eguraldi txarragatik.

PUB

ASTI

Zaldizurreta kalea

88 45 06

BEASAIN

ETXEBE

TABERNA

Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!

Zaldizurreta Kalea

BEASAIN

Urte berri on!

Bai

Bai

Punk Bai

BEASAIN

2: Goierriko **EAJko alkateek** utzi egin zuten Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataforma, "*Batzar Nagusietan hartutako erabakia nahikoa dela*" uste izan baitzuten.

7: II. Mugazgandiko Nekazal elikagaien azoka izan zen Ordizian. Aurretik, Ezpeleta eta Altsasun izan ziren azokak.

7: Kimetz ipuin lehiaketako sari-banaketa egin zen Ordiziako Barreran. Euskarazko atalean Xabier Etxaniz trintxerpearra izan zen irabazlea; eta gaztelerakoan, Beatriz Ruano ordiziarra.



8: Beasaingo Ikastolak Urbialdeko ikasgelak inauguratu zituen.

13: Goierriko PSE-EEk Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataformarekin bat egiten duela adierazi zuen prentsaurrian, eta EAJko alkateek Plataforma utzi izana salatu zuten.

17: Goierriko HBk, Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataforman parte hartzeko deia egin zien herri-mugimenduei, eta EAJko alkateen jarrera salatu zuten.

20: Ataun Kirol Elkartek antolatutako, **gau-ibilaldia** izan zen.

20: Zine herrikoia izan zen Itsasondan Gazte Asanbladak eta Goieniz zine klubak antolatuta.

20-23: San Joan gauaren magiarekin, Goiekik antolatuta, **kale-antzerkia** izan zen Ataun, Lazkao, Olaberria, Ordizia, Gabiria, Zegama, Legorreta, Segura, Itsasondo eta Zaldibian.

20-24: San Joan jaiak ospatu ziren Olaberrian eta Seguran.

20-23: Ordiziako **Otegi-enea** auzoko festa berreskuratu ziren.

20-23: Otso festa 97 ospatu zen Ataunen.



21: Txolarte kluben (Adimen-urriko pertsonen aisialdiko taldeak) eguna ospatu zen Ordiziako Oiangun.

22: Murumendien mendien adierazgailua jarri zuten Beasaingo Udalak eta Aitzgorri Mendizale Elkartek.

22: Segurako Dantza Solteko txapelketa Iraultza Garmendiak eta Iban Agote lezotarik bikoteak irabazi zuen.

25: Abialdian Aska-tasunaren martxa zela eta, inguruko mendi tontorretara mendi-irteerak egin ziren.

27: Antzizarko lotunea eta Ormaiztegiainoko 3 kilometroko autobia zatia inauguratu zen.

27: EAEko Auzitegi Nagusiak forma akats bat aintzat hartuz ezeztatu egin zuen **Mikel Otegi** absolutu zuen epaia. Beraz, epaia errepikatzeko erabakia hartu zuen.

27.29: San Pedro jaiak ospatu ziren Mutiloan, eta Beasaingo Porteria eta Arriaran auzoetan.



29: Ekaitz Goikoe-txea Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari txapeldun atera zen, 15 urtetik 18rako en mailan.

ALPAPA

Urte Berri on!

- ✓ Eguneroko menua
- ✓ Pintxo bereziak

Pasatu Urte Berria giro atseginean!

NAGASAKI

Taberna

Urte Berri on!

☎ 88 15 67
J. M. Iturrioz BEASAIN

BESTE BAR

OGITARTEKO
PINTXO
KAXUELITAK

SINAZIO 1 ☎ 160284 - BEASAIN

ALUMINIOS

EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiarako profilak
Bainu manparak
Aluminio xafla normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

1: Goierrialdea Bus autobus zerbitzua abian jarri zen.

2: Joxe Mari Otegi Itsasondoko alkatea atxilotu zuen Ertzaintzak, Espainia-ko ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik.

2-6: Ataungo Aiako **Santa Ixabel jaiak** ospatu ziren.



6: Txomin Landa zegamar sakristaua omendu zuen Zegamako Parrokiko-batzordeak.

7: Mikel Otegi ez zen bere aurkako epaiketara azaldu. Ondorioz bilatu eta atxilotzeko agindua eman zuten. Gaur arte ez da bere berririk.

7: ENBA nekazal sindikatuaren eskutik **Esne topaketak** izan ziren Lazkaomendiko baserriarren elkarteak.

11: Goierriko Udaletxe aurreetan, **bost minutuko bilkurak** egin ziren, ETak bahitu zuen Miguel Angel Blanco PPko zinegotziaren askatasuna eskatzeko.



11: Jesus R. Jauregi eskultore eta margolariak arte estudio-galera inauguratu zuen.

11: Manuel Aran, Olaberriako aguazila erretiratu egin zen. Omenaldia eskaini zion Udalak.

12: Haur abesbatzen jaialdia ospatu zen Zegaman. Herriko Orkatx Txiki, Legazpiko Elusta eta Zumaiaiko San Pedro Txiki abesbatzek hartu zuten parte.

14: Ez-ohizko Udal bilkurak egin ziren Udaletxeetan, Miguel Angel Blanco-ren hilketa salatzeko. Ordubeteko geldialdia egitea erabaki zen. Denda eta lantoki gehienek ateak itxi zituzten. Arratsaldean **manifestazio** jendetsua egin zen.



Hiru zutabe izan zituen: Lazkaotik, Beasaindik eta Ordiziatik abiatuta. Malkaskon elkartu ziren guztiak. Manifestazioen hasieretan 'Euskal Herria Askatu' eta 'Presoak Euskal Herrira' lelopean konzentrazioak izan ziren HBk deituta.

15: Askatasunaren aldeko martxa, **Abialdian**, Beasaina iritsi zen.

18: Flaco Jimenez, Iparragirre anai-arrebak, eta Alaitz eta Maider trikitilarien kontzertua izan zen Beasaingo Antzizar Kiroldegian.

18: Ordiziako Antzerki Tailerrak 'Errege gaua' antzezlan taularatu zuen.

18-27: Ordiziako **Santa Ana jaiak** izan ziren.

19: Mugaz Muga 97 burutu zen Zegaman. Herriko mugak ezagutu eta herriarrek elkarrekin asteburu polit bat pasatzea zuen asmoa ekimen honek.

18-20: Aztiriako **Santa Marina jaiak** ospatu ziren.

19-22: Itsasoko Alegiko **Madalen jaiak** ospatu ziren.

20: Iru Rodamentuak-Jai Alai pilota txapelketaren finalak jokatu ziren Ordizian.

23: Euskadiko Arku-tiro lehiaketa jokatu zen Beasainen.

24: Idiazabalgo II. Triatloia jokatu zen.

25: Ordiziako jaien barruan, **Igo Gazteen Nazioarteko Folklore Jaialdia** ospatu zen.

25-26: Portugalen jokatutako akordeoi txapelketan, **Oroitz Maiz** gabi-riarrak txapela jaso zuen.

26: Iñaki Azurmen- di aizkolari arriarandarrak Gipuzkoako Hirugarren mailako aizkolari txapelketa irabazi zuen.



ITOITZ

ogitartekoak

kafetegia

© 16 18 08

Goierri Kalea ORDIZIA

garagardo

bereziak

EZKAILU

T A B E R N A

Pintxo eta kaxuelita aukera zabala

Urte Berri on!

Etxezarreta Kalea ORDIZIA

5-7: Ataungo **San Gregorio** auzoko jaiak izan ziren. Baita Beasaingo **Igartza auzokoak** ere.

5-14: **Euskal astea** ospatu zen Ordizian.

7: **Gipuzkoako Artzain-zakur txapelketa** jokatu zen Mandubi gainean. Jose Antonio Arri-llagaren 'Txiki' txakurrak irabazi zuen.

7: **Ordiziako eta Segurako jubilatuen** jaiak ospatu ziren. Beasaingo **Usurbe mendiko jaia** ere ospatu zen.

9: Elkarleen arteko **VII. Sukaldaritza lehiaketa** jokatu zen Ordizian. Herri bereko Jai-Alai elkar-teak irabazi zuen. Ondoren odolki lehiaketa izan zen eta Ormaiztegiko Iñaki Kanposek irabazi zuen.

10: **Aparteko azoka** izan zen. Gazta txapelketa Idiazabalgo Jesus Aranburuk irabazi zuen. Gazta erdiagatik 570.000 pezeta ordaindu zituen Prycak

13: **Sukaldari gazte-en I. lehiaketa** jokatu zen Ordizian. Igor Garikano ordiziarrek irabazi zuen.

14: **Lazkao Txiki IV. Bertsopaper lehiaketako** sari-banaketa egin zen. Gaztetxoetan Ataungo

Aitzol Munduate ataundarrak irabazi zuen; gazteetan Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak; eta helduetan Jon Eizmendi hernaniarrak.



14: **Bitoriano Telleria** Idiazabalgo organista hil zen.

14: Ataungo **Kerejeta-enea** denda itxi zen.



14: **Migel Irizar** Peruko Limako gotzainak zilarrezko ezteiak ospatu zituen Ormaiztegin.

14: Partzoneriako **ehiz postuen** zozketa egin zen Segurako Udaletxean.

14: Legazpiko Artzain egunean Zaldibiako hiru artzain omendu zituzten: **Ignazio Sukia, Jose Urretabizkaia** eta **Migel Munduate**.

14: **Mendi-ibilaldi neurtuaren** 30. edizioa jokatu zen Ataunen.

19: Goiekik antolatutako **'Ideia berritzaileen Igo sariaketa'**-ko sari-banaketa egin zen. Irabazlea Salvador Lobero donostiarra izan: gurpildun-aulki berezia aurkeztu zen.

19: **Jose Maria Calleja** kazetariak hitzaldia eman zuen Beasainen, Gure Eskuetan taldeak gonbidatuta.

20-29: **San Miel** inguruko ospakizunak izan ziren Lazkaon.

20: Ordizian izan ziren **kale-istiluak** izan ziren eta bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak: Lazkaoko A.S.M. eta Ataungo A.T.I.. Kargurik gabe libre gelditu ziren. Ordiziako Udalak deituta, istilu hauek salatze-ko, **manifestazioa** deitu zuen, irailaren 23rako. HBk bere aldetik, gazteen aurkako kriminalizazioaren aurkako **manifestazioa** egin zuen, irailaren 28an.

20: Beasainen **Kimuak** aisialdiko taldeen jaia ospatu zen.

21: **Nekazaritza ekologikoaren azoka** izan zen Zerainen.

21: Ordizian **Dantzari txiki eguna** ospatu zen.

21: **Idiazabalgo jubilatuek** euren eguna ospatu zuten.

21-24: Beasaingo **Lazkaibar auzoan** Ama Mesedetakoaren jaiak ospatu ziren.

26: Ormaiztegiko **Kutxako bulegoa** erasotua izan zen.

26: **'Indarkerian hezi'** karpeta didaktikoa aurkeztu zuen Goierriko Gesto por la Pazek.

26-29: Altzagan eta Gaintzan **San Miel jaiak** ospatu ziren. Idiazabalgo **Ursuaran auzoan** ere bai.

27-28: Ordizian merkatarik elkar-teak antolatuta, **moda desfilea eta ileapaintze lehiaketa** izan ziren Ordiziako Majori kiroldegian. Ileapaintze lehiaketa Lasarteko David Barbék irabazi zuen.

28: **Olaberriako** jubilatuen eguna ospatu zen.



HERRI BATASUNA

Ordiziako Herri Batasunak gabonak eta urte berri zorionsua opa dizue herritar guztiei, preso guztiak etxera ekarriaz.

ORDIZIA



GARMENDIA ERAIKUNTZAK

TEILEN BIRGAITZE, MANTENIMENDU ETA MUNTAIA

© 69 35 49 - 989 65 34 52 Alkorta Enea, 3 2. esk. - ZIZURKIL



3: Goierrialdea Bus autobus zerbitzua ofizialki inauguratu zen Beasaingo tren geltokian. 14 autobus ari dira zerbitzua eskaintzen. Garraio publikoa erabiltzeko sentsibilizazio kanpainari ekin zion Goiekik. Horretarako Kiriku maskota sortu zuen.

4: Osinalde bola txapelketa jokatu zen Gabirian. Juan Idarretak irabazi zuen.

4-12: Santa Fe jaiak ospatu ziren Zaldibian.

5: Nazioarteko Segatxapelketa jokatu zen Zaldibian. Suiza, Baviera, Tirol eta Zaldibiako segalaria aritu ziren lehian.

7: Lazkaoko Azki emakume taldeak hitzaldi zikloari hasiera eman zion. Txaro Arteaga Emakundeko zuzendaria izan zen lehenengo gonbidatua.



8: Koke Lasa mendizale ormaiztegiarrak Manaslu mendia tontorrera iritsi zen.

9: Izaskun Larrauri, Ikaztegiako gasolindegiko langilea eskupeta tiroz hil zuten. Lapurrek 20.000 pezeta eraman zituzten.

10: Ostiela! aldizkariaren 7. alea aurkeztu zen Ordiziako Baga Biga dendan.

12: Josune Bereziartuk Espainiako Eskalada txapelketa irabazi zuen Murtzian.

12: Olaberriako IV. Argazki rallya egin zen. Sari-banaketa azaroaren leian egin zen. Ruben Sanchez ordiziarra izan zen irabazlea. Montse Martinez olaberriarrak herritar onenaren saria jaso zuen.

12: Zegamako jubilatu eguna ospatu zen.

16: Loinatz 97 elkarteak Beasaingo musika taldeen CDa aurkeztu zuen Beasainen.

15: Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataforma bildu zen. Jose Julian Irizar Garraio eta Errepide Diputatuak 2001. urterako Etxegarate bikoiztuta egongo zela esan zuen. Plataformak "Etxegarate bikoizteko borondatea dagoen edo ez egiaztatze" adi egoteko eskatu zien goierritarrei.

16: Ikasle Abertza-leak taldeak deiturik 4 orduko itxialdia egin zen Ordiziako Barrenan, HBren Mahai Nazionalaren epaiketa salatzeke.

16-18: Bach musikaldia izan zen Ordizian.

17: Ormaiztegiko saihesbidea inauguratu zen.

19: Lumagorri base-rriko oilaskoaren eguna ospatu zen Zerainen. Pedro Subijana sukaldaria, base-rriko oilaskoaren Laguna izendatu zuten.

20-25: Ormaiztegin kultur astea berreskuratu zuten.

22-26: Kultur astea izan zen Legorretan.

23-26: Eduardo eta Iparrari omenaldi astea egin zion Idiazabalgo HBk.

24: Beasainen Udazken kulturala hasi zen. Azaroaren 9ra arte luzatu zen.

24: Igartzako monumentu multzoaren seinalez tapena jarri zen, Loinatz 97 elkartearen eskutik.

26: IV. Ardiki eguna izan zen Zaldibian. Mondeju lehiaketa Eñaut Hernandez eta Aloña Jauregi bikoteak irabazi zuen. Aralarko artzainen gazta txapelketa, berriz, Zezilio Goñik irabazi zuen.

26: Zegamako Aitxuri herri-eskolaren inaugurazioa izan zen. Inaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzeko Hezkuntza sailburua izan zen bertan.

26: Idiazabalen kultur astea izan zen azaroaren 1a bitartean.



27: Beasaingo Paperak atalaren barruan, **Martin Mendizabal frantziskotarrak**, 'San Martin Igokundekoa, Loinazkoa eta Amunabarrokoka: gipuzkoar ezezaguna' liburua aurkeztu zuen.

31: Lazkaoko PSE-EEk prentsaurrea eman zuen, herriko Kultur Etxea egiteko Diputazioak 35 milioiko diru-laguntza eman-go duela adierazteko.

ELOLA
ALTZARIAK
Etxeko eta sukaldeko altzariak

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoa. 65 29 01

ITZALA
taberna

Urte Berri on!

Zaldizurreta, 3
88 30 24 BEASAIN

1: *Itsasoko Ostatua* berrituta ireki zen.

2-11: *San Martin jaiak* ospatu ziren Atau-nen izen bereko auzoan.

2: *Hiru auzoetako korrikaldia* Santi Gon-zalezek eta Mari Carmen Garciak irabazi zuten.

5: Ataungo Udalak *Mao-mendiko proiektua-ri*, 40 etxola eraikitze-ri, baietza eman zion, onurak kalteak baino gehiago direla adieraziz.

7-11: Araman *San Martin jaiak* izan ziren.

7: *Benito Lertxundi* kantaria izan zen Beasaingo Usurbe Antzokian.

7: Beasaingo *Euskadi-ko Kutxaren* bulegoa erasotu zuten 3 kaputxadu-nek.



8: Beasainen *XII. Odolki dastaketa eta lehiaketa* izan zen. Seguran harategia duen Itziar Aranburu zeraindarra da harrez gero 'Odolkien erregina'.

9: *Jentilen etorrera* ikuskizuna izan zen Atau-nen.

9: *Gregorio Ara-mendiren* oroimenezko zeramika erakusketa inau-guratu zuten Zegaman. Arantzadi Zientzia Elkartea-aren laguntzaz Zegamako Udalak eratu du erakusketa, eta urtarrilaren 7ra arte ire-kita dago, Eskola zaharretan.

10: *Rufino* eta *Maria Jesus Arriaga* ordizia-rrak eta *Xabier Iras-torza* beasaindarra atxilo-tu zituen Frantziako Poli-ziak Orleansen. ETAko kide izatea leporatzen die hiru-rei.

13: Segurako Udalak, EA eta EAJren aldeko botoekin, baietza eman zion Madu-rako *saihesbideari*.

13-14 eta 23an: *'Xabier Azurmendi ezagutuz'* ihardunaldia egin zen Zegaman. Poeta zegamarraren liburua, 'At-zoko Zegama', ere aurkeztu zen.

15: *San Martin* azoka, ospatu zen Zegaman.

15-22: Goierriko 10 la-gunek *gose greba* egin zuten Zaldibian, euskal pre-soen Euskal Herriratzea es-katzeko.

17: *Zaborra trinko-tzeko makina* inau-guratu zuten Sasieta Zaborte-gian. Iñaki Txueka Inguru-giro eta Nekazari diputatua bertan izan zen.

19-22: *Kultur Ele-jira* kultur astea izan zen Itsasondon.

20: *Ordiziako HBk* prentsaurrekoa eman zuen Ordiziako Alkateak Beasai-nen aholkularitza zerbitzu bat ireki zuela salatuz.



21-30: Ormaiztegin *San Andres* jaiak ospa-tu ziren.

22: *Urruñako ikas-tolari* laguntza emateko eta elkartasuna adierazteko Beasaingo, Ordiziako eta Lazkaoiko ikastolek jaialdia antolatu zuten Ordizian.

23: *Errezil-sagarra-ren lehiaketa* eta base-rriko produktuen azoka ospa-tu zen Gabirian. Maria Isabel Zumalakarregik ira-bazi zuen. Egun honetan, Martina Arratibel omendu zuten.

23: *Zegamako an-tzerki tailerrak* lehen obra taularatu zuen: 'Jo ezak berriro Sam'.

28: *Goierriko Obje-tore Taldeak* (GOT) agur afaria egin zuen Ordi-ziako Gaztetxean.

29: *Goierriko eus-kara taldeen II. jar-dunaldia* burutu zen Lazkaon.

29: Ormaiztegin *Kutxa eta Euskadiko Ku-txaren* bulegoak erasotu zituzten 30 bat kaputxadu-nek.

30: *'Lareoren Alde-ko Ekimena'* taldeak Lareora martxa antolatu zuen, Maomendin egiteko asmoa duten proiektuaren aurka.

30: *Euskal Herriko Bertsolari txapelke-tako* azken finalaurrekoa Beasainen jokatu zen.

30: *Juan Aldasoro* zegamar artzainak Euskal Herriko Gazta txapelketa irabazi zuen Lizarran.

30: *Iñaki Kanpos* ormaiztegiarrak irabazi zuen Ormaiztegiko Odolki txapelketa.

30: *San Andres* jaia ospatu zuten Segurako izen bereko ermitan.



**BAREA
TABERNA**

Zaldizurreta z/g 16 19 51
BEASAIN



Legazpia Kalea, 3

• Pintxoak aukeran
• Ogitartekoak

Gabon zoriontsuak eta Urte Berri on!

ORDIZIA

1: **Oskarbi Jauregi, Urko Galarraga eta Iker Atxotegi** zaldibitarren; eta **Argider Mujika** lazkaotarraren aurkako epaiketa hasi zen Madriden. 'Y taldekoak' izatea eta hainbat sabotaia egitea leporatzen zien epaileak.

6: **Senideak elkar-teak** Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten egin zuten martxa ibiltaria Goierriera etorri zen. Arratsaldean manifestazioa egin zen Beasaindik Ordiziara.

6: **San Nikolas** eskea ospatu zen Seguran, Zegaman eta Beasainen.

6: **Ikasle Abertzaleak** taldeak herri-eskola antolatu zuen Ordiziako Plaza Nagusian.

11: **Zeraingo aterpetxea** inauguratu zen. Eskola zaharra berritu dute eta 50 lagunentzako lekua dago bertan.

11-22: **Euskal liburu eta diskoen azoka** antolatu zuen Goiztiri AEK-k Beasainen.

12: Beasainen **Urbieta etxea** inauguratu zen. Eskualderako zerbitzua eman go duten INEMaren eta Gizarte Segurantzaren bulegoak, eta herriko arte plastiko-en bulegoak kokatzen dira bertan.

12: **Koke Lasa** mendizale ormaiztegiarra eta orokorrean euskal mendizaletasuna omendu zituzten Ormaiztegin.

12-17: **Euskal liburu eta diskoen azoka** egin zen Lazkaon.

13: Zeraingo Kultur Etxean **arte-opari** erakusketa eta salmenta inauguratu zen. Urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik.

13: **Aterpe pintura lehiaketako** sari-banaketa egin zen. Mamen Garcia izan zen irabazlea.

13: Zumarragako Santa Luzia azokatik goierritarrek hainbat sari ekarri zituzten; haragitarako behorretan Gabiriako Jose Ramon Peñagarikanok irabazi zuen; urtebeteko zaldietan, Zaldi-

biako Aralar Pottoka Elkartek; urtebeteko behorretan, Zaldibiako Mikel Iraetak; errezil-sagarretan, Gabiriako Maria Isabel Zumalakarreagik; fruituetan Gabiriako Maria Etxezarretak; eta hegaztietan, Ezkio-Itsasoko Juan Aranburuk jaso zuen saria.

14: **Mikel Mendizabal** Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean izan zen. Itsasondoarra 5. izan zen eta doinu ezberdin gehien erabiltzearen saria ere jaso zuen.

14: Beasaingo Pelota Eskolak **Joxe Aranburu** entrenatzaile omendu zuten.

14: **'Loinazko San Martinen kantata'** aurkeztu zuten Beasainen, herriko Loinatz abesbatzak eta Ordiziako Oroith abesbatzak. Musika Xabier Sarasolak egin du; hizkia, Andoni Sarriegik.

14-31: **Joxemiel Barandiaran** gogoratzeke Joxemiel Barandiaran Murkondo Kultur Elkartea ekintzak ari da burutzen.

15: Ezkio-Itsasoko **Agorre Aundi baserria** erre zen. Soinean zutenarekin bakarrik gelditu ziren bertako bizilagunak.



15: **Iker Atxotegi** zaldibitar preso askatu zuten. 1995eko abuztutik zegoen preso eta abenduaren 1ean epaitu zuten, beste 6 lagunekin batera.

16: **Elurrak** Goierri osoa zuritu zuen.

20: **'Ordiziara'** plattformak aurkeztu zen Barrenan. Zigorren hiru laurdena beterik duten 5 preso ordiziarren askatasuna eskatzen du plattformak.

24: **Eguberrietako azoka** berezia egin zen Ordizian.



EDARITEGIA

Jar

KAFETEGIA

Urte Berri on!

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 88 86 81

BEASAIN

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Urte Berri on!

Urdaneta, 27

☎ 88 00 23 - 88 11 40

ORDIZIA

ÑAÑARRI
taberna

Urte Berri on!

Kale Nagusia, 1

☎ 88 06 59

BEASAIN

LEGORRETA

Argazki zaharren erakusketa,
Pulitz-Zer?-en eskutik

Pulitz-Zer? argazkilari elkar-
teak, Udalaren laguntzaz,
antolatutako argazki era-

kusketa dago Kultur Etxe-
an. Urte hasieran argazki
zaharrak biltzeko deialdia

egin zuen Pulitz-Zer?-ek eta
bertako kideek adierazi di-
gutenez, kopuru handia bil-
du dute. Tartean legorreta-
rrentzako bereziki oso ar-
gazki interesgarriak omen
daude.

Argazki horietatik, eska-
ner bidez, interesgarrienak
dijitalizatu egin dira eta be-
har zutenak ordenagailuz
konpondu. Gainera argazki
dijitalizatu horiekin, datu-
basea sortu da, horrela etor-
kizunean ikusi nahi dituen
edonork eskuratu ahal dit-
zan. Horretarako Udalaren

esku geratuko da datu-base
hau.

Datu-base horretako zen-
bait argazkirekin, paperera
pasa ondoren, erakusketa
antolatu da. Lau egunetan
izango da ikusteko aukera:

Abenduak 27: 16:00etatik
20:30etara.

Abenduak 28: 11:00etatik
14:00etara.

Abenduak 31: 16:00etatik
20:30etara.

Urtarrilak 1: 11:00etatik
14:00etara.

IDIAZABAL

Barianteko lanak otsailean hasiko dira

Otsailaren bukaeran hasiko
dira Iñautsi eta Gaztelu ja-
tetxea bitarteko errepide za-
tia bikoizteko lanak. Gipuz-
koako Diputazioak Mariez-
kurrena enpresa aukeratu du
lan hoiek egiteko. Guztira
18 taldeek aurkeztu dute
saihesbidea bikoizteko au-
rrekontua. Diputazioak au-
keratutakoak 1.183 milioi-
ko aurrekontua egin du.

Saihesbide berria 28 hi-
labeteren buruan bukatuta
egongo da, Diputaziotik ja-
kitera eman denez litekeena
da lanak egiteko denbora
gutxiago behar izatea.

Guztira 3 kilometro pa-
satxo bikoiztu beharko di-
tuzte. Proiektuari 35 alega-
zio arukeztu dizkiote eta
hoiek aztertzen ari da orain
Gipuzkoako Diputazioa.

Sanblasetarako
prestatzen

Gabonen erdian, urte be-
rriaren atarian otsaila aldera
begira jarrita dago herritar
bat baino gehiago. Kultura
Batzordeak deituta herritar
talde batek eman dio dagoe-
neko itxura 98ko Sanblase-
tako egitarauari.

Urtarrileko azkeneko as-
teburuan hasiko dira ekital-
diak, hilaren 25ean krosa
izango da. Jaiek urtarrila-
ren 31n izango dute jarrai-
pena. Otsailaren 1ean (la-
runbata) herriko txirrindula-
ri proba eta helduen tanbo-
rrada egingo dira, haurrena
igandean izango da.

Astelehena, Sanblas bez-
pera, haurren eguna izenda-
tu dute eta egun guztian ze-
har haurrei eskainitako eki-
taldiak egongo dira. San-
blas eta Sanblas txiki egu-
nak berriz herritarrei eskai-

nitakoak izango dira.

Trial Saria

98ko Sanblasetan berrikun-
tza bat ere izango da. Gi-
puzkoako federazioak anto-
latuta Trial lehiaketa egingo
da herrian otsailaren 1ean.
Herriko bi edo hiru lagun
ekimenez antolatu da lehia-
keta hau. Antolaketa lanak
Gipuzkoako Trial federa-
zioak egingo ditu eta proba
Gipuzkoako txapelketarako
puntuagarria izango da. An-
tolatzaileen esanetan proba
hori urtero egiteko asmoa
du Gipuzkoako federazio-
ak.

Danborrada

Danborrada antolatzen duen
taldeak oharra kaleratu du
helduen danborradan azken
urteetan izandako partaide
kopuruak izan duen behera-
kadari buruz. Oharreak dio,
"helduen danborradan 250
partaidetik gora izatera

*iritsi gara (...) azken bolada
honetan berriz, danborra-
dako partaidetza goitik be-
hera doa. Ez dakigu zer
gertatzen den baina alda-
tzeko asmotan gabiltza".*

Oharra dionez antola-
tzaileak gainbehera horri
aurre egin nahi diote, eta
jendeari danborradan parte
hartu dezan erreztasunak
eskaini nahi dizkiote. Bes-
teak beste jantzirik ez dute-
nei beraiek utziko dizkietela
jakinarazten da oharrean.

Danborradan parte hartu
nahi dutenek ondoko egun
eta orduetan azaldu beharko
dute entseietara: Haurrak,
urtarrilaren 7, 14, 21 eta
28an arratsaldeko 6.30etan.
Helduak, urtarrilaren 21 eta
28an iluntzeko 8.30etan.
Entseiuak Guraso Elkarteko
aretoan egingo dira.

Xabier Urteaga

BEASAIN

'Ai Geala' indartu nahian, hamaiketako

1993. urtean sortu zen 'Ai Geala' euskara taldearen jarduna moteltzen joan da urtetik urtera. Aurrera edo atzera egin erabakitzeak, abenduaren 13an bazkideen bilera izan zen. Bazkide gutxitxo azaldu zen, baina guztiek ere herrian euskara taldearen beharra azpimarratu zuten.

Gauzak honela, beste deialdi bat egitea erabaki zen, 1998ko urtarilaren 10erako. 'Ai Geala'-ren

bazkideei eta euskararenganako kezka edo interesa duten herritarrei luzatzen zaie deialdia. Euskara taldearen fase berria izan daitekeen honi indarrez ekin nahi zaio, eta hamaiketakoa izango da, Udaletxeko Batzar-aretoan izango da, goizeko 11.00etan.

Bareak dendarik

Herriko hainbat dendari, Bareak elkartearen berriz ere indartzeko eta pizteko elkartu dira. Hasiera emateko,



Joxe Aranbururi omenaldia egin zioten Pelota Eskolak eta Guraso Elkarteak, abenduaren 14an. Azken 17 urte hauetan Joxe Aranburu izan da Pelota Eskolaren arduraduna eta herrian pelota sustatzen ahalegin handia egin du. Benjamin, alebin, infantil eta jubenilen arteko pelota partiduak izan ziren lehenengo omenaldi egunean. Ondoren aureskua eskaini zioten bi dantzari. Eta azkenik, bazkaria izan zuten Kattalin jatetxean. Joxe Aranbururen ordeko lana, Juan Ramon Mendia pelotariak beteko du.



VI. Aterpe Pintura lehiaketa. Abenduaren 13an ezaguturazi ziren VI. Aterpe Taberna pintura lehiaketa sarituak. Lehen saria eta brontzezko garaikurra, Mamen Garcia margolari donostiarrak lortu zuen. Epaimahaiak bere koadroa izan zuen gogokoen, aurretik aukeratutako 6 finalisten artean. Horien artean bi lazkaotarra izan ziren: Maider Urretabizkaia eta Josu Konde Zabaleta.

Guztira 7 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan, gehienak gure eskualdetik kanpokoak; 9 goierritarrek parte hartu dute. Guztiak ikusgai izango dira Aterpe tabernan martxoaren 13ra arte. Multzoetan banatuak izan dira, eta 15 egunero aldatuko dira zintzilikatutako lanak. Argazkian, Aterpeko Txomin Ferreira, Mamen Garcia irabazlea eta eskubitarra, lan saritua.

Gabon giroa aprobetxatuz, Udalarekin batera, txikientzat ekintza ugari antolatutakoak. Orentzerok adibidez, trenez etorri zen. Magia, mimoa, karikaturak, trikilariak, gabon kantuak, 'Ni hartza naiz' antzerki obra... izan dira orain artean antolatutakoak. Aurrera begira, 31ko San Silbestreaz gain, urtarilaren 2, 3 eta 5ean haurrentzako Gabon parkea izango da Batzokiko pelotalekuan. Goizez eta arratsaldean izango dira irekita: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Gabonetako egitaraua Erregeen kabalgatarekin bukatuko da. Ezusteko atseginak izango omen dira.

tuko da. Ezusteko atseginak izango omen dira.

Ikasle sarituak

Kutxa Fundazioak, ikasturtero, espediente akademiko onenen sariak banatzen ditu Gipuzkoako Fakultate guztiak kontutan hartuz, publikoak nahiz pribatuak. Eta aurtengo sarituen artean bi herritar izan ditugu: EHUn Kimika ikasi duen Alaitz Aranburu Txintxurreta eta Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letrak egin dituen Miren Josebe Barandiaran Contreras.

Aitor Arrue - L.A.

BERGARA
Barrenkalea, 35
☎ 76 03 98

BEASAIN
Nafarroa Etorb., 1
☎ 88 48 65

ARRASATE
Otalora z/g
☎ 79 11 72

LARRAITZ

Lurrindegia Opari gaiak

Oriamendi Kalea & 88 33 02
BEASAIN

ZERAIN

Artelan txikien erakusketa eta salmenta

Zerain Dezagun Fundazioak, iaz Goya margolariari egindako omenaldiaren haritik, arte erakusketa eta bide batez salmenta egiteko aukera jarri du. Euskal Herri osoko 28 artisten lanak biltzen dira bertan. Baina berezitasun bat dute, artelan txikiak direla guztiak. Gabonetako opari-poltsa betetzeko egokiak, Joxe Mari Telleria pintore eta antolatzaile zeraindarraren esanetan.

Artista gehienak pintoreak dira, eskultoreak hiru. Estilo guztietakoak. Eta noski, prezio ezberdinetakoak ere bai. Merkeena 11.000 pezetakoa, garestie-



na 300.000koa. Prezioak edozein galeriatan baino merkeagoak omen dira.

Artista hauen lanak ikus daitezke: Jose Ramon Amundarain, Mariano Arsuaga, Jaione Berasategi,

Juan Luis Goenaga, Juan Gorriti, Felix Igartua, Jesus R. Jauregi, Amaia Kasasola, Rafa Lafuente, Jesus Mari Lazkano, Migel Anjel Lertxundi, Inge Mieg, Juan Mieg Solozabal, Ana Muji-

ka, Alberto Rementeria, Pello Salaberri, Dora Salazar, Jose Antonio Sistiaga, Javier Soto, Daniel Tamayo, Alejandro Tapia, Jokin Telleria, Joxemari Telleria, Tomax Ugartemendia, Karlos Zabala 'Arrastalu', Jose Luis Zumeta eta Ramon Zuriarrain.

Erakusketa Kultur Etxe-an dago kokatua, urtarrilaren 6ra arte. Egunero egongo da zabalik. Astegunetan 10:30etatik 13:30etara eta 15:00etatik 18:00etara; asteburuan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

ORMAIZTEGI

Eguberrietako ekintzek aurrera jarraitzen dute

Abenduak 29:

11:00etatik 13:00etara: Haurrentzako marrazki eta eskulan tailerrak, Fernando Botanz irakaslearen eskutik, Plazan. Eguraldi txarra-ekin liburutegian

15:00etan: Plazako lorategian zaintza egitea.

17:00etan: Haurrentzat zine emanaldia Kultur Etxeko aretoan.

19:30etan: Koke Lasa herritarraren 'Mendizerra txuriari' buruzko ikusentzunezkoa Kultur Etxeko aretoan.

Abenduak 30:

11:00etatik 13:00etara: Haurrentzako marrazki eta eskulan tailerrak, Plazan.

20:00etan: Ordiziako antzerki tailerraren 'Errege gaua' antzerki obra, Parroki aretoan.

Urtarrilak 5

12:00etan: Erregeen eraldia: Erregeak noiz iritsiko diren adieraziko digun mezua zabalduko da. Ondoren kabalgata. Mendizabalentik Plazara eta ondoren Gabiriako bidea hartuko du.

Aitziber Murua

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Eguberrietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN

SARRI Taberna

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Etxezarreta K. ORDIZIA



PUB
XUBER

Urtea ondo bukatu eta hobeto hasteko giro aproposa!

Zaldizurreta z/g BEASAIN

LAZKAO

Ramon Quina 'Montxo' Madrilen omendua



Ramon Quina lazkaotarrari omenaldia eskeini diote Madrilen. Wu Shu (Kung-fu) deituriko kirola egiten du herritar honek, eta ez nola nahi gainera, egungo munduko txapelkun ordea bait dugu.

Hamahiru urte daramatza kirol hau eta beste hainbat egiten, eta asko dira jaso dituen sariak. Hala nola, Wu Shu-ko era desberdinetan 13 aldiz izan da Espainiako txapelkun ere emaitza bikainak lortu ditu, baina lorpenik garrantzitsuenak Munduko txapelkun izan ditu. Orain 2 urte, Sanda

edo borrokaldien modalitatean laugarren izan zen Baltimoren, eta aurren, berriz, bigarren izan da Erromako Munduko txapelketetan, borrokaldirik galdu gabe gainera. 86az geroztik Euskal Herriko selekzioaren partaide dugu, eta 89az geroztik Espainiako selekzioarekin.

Guzti honegatik Espainiako federazioak omenaldia eskeini dio, bera izanik federazio honek omenduriko lehen kirolaria. 'Montxo' oso pozik dago eta eskerrak eman nahi dizkie hainbeste urtetan laguntza eskeini dioten lagunei eta batez ere bere maisu izan den Jose M. Ruiz Jimenez beasaindarrari.

Presoak Euskal Herrira Lazkaoko Ekimena

Aurreko alean agertu genuen bezala, herrian sortu berria da euskal presoaren egoera aztertu eta plazaratuko duen talde bat. Hauek honako idatzi hau bidali digute.

"Euskal Herriko presoaren egoera oso larria da. Kar-



tzelak berezkoa duenaz gainera, larritasun gehigarria ikusten dugu.

Horiek horrela, eta Euskal Herriko beste hainbat herritan indarrean dagoen bezala, Lazkaon sortu berria da preso guzien, sozial eta politiko, alde modu berezian jokatu nahi duen taldea: "Presoak Euskal Herri- ra. Lazkaoko Ekimena".

"Ekimena" herriko sektore desberdinetako jendeak osatu du; oraingoz 15 lagun inguruk. Jakina, taldea irekia da, eta lan egin nahi duen normahik har lezake parte hor.

Jakina, ez da esan nahi Lazkaon orain arte presoak ahazturik egon direnik; askoz gutxiago ere. Hor dago,

esaterako "Senideak" en ordezkaria eta urteetan egin diren eta egiten ari diren hainbat eta hainbat ekintza. "Ekimena" k handiagotu eta zabalagotu egin nahi ditu presoaren aldeko jarrera eta jokabidea: giza eskubideen alde dagoen borondate oneko jende guztia elkartu.

Harremanetarako, laister jarriko du indarrean bere helbidea "Ekimena" k. Bien bitartez, aurtengo abenduaren 24an, kalean, mahai baten inguruan, ikusi ahal izan ziren orain arteko taldekideak txandaka."

**Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu**



☎ 88 55 00 ORDIZIA



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Urte Berri on denoi!

Pello Barandiaran

☎ 16 13 61
**Hirigoien, 18
LAZKAO**

Bateak Taldea
SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoien, 12 LAZKAO
Tfnoa.: 88 86 20 Faxa: 88 91 18
Tfno. mugikorra: 908 57 91 92



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

ORDIZIA

Igeriketa txapelketa eta San Silbestrea

● Igeriketa txapelketa

XV. Eguberrietako Aldundiko Nazioarteko Sari Nagusia jokatu da abenduaren 29an, astelehena, Majori Kiroldegian. Munduko txapelketa datorren hilean jokatu denez, goi mailako igerilari gehiegirik ikusteko aukerarik izango ez dugun arren, ikuskizuna ziurtatua dago. Denon ezauna den Sergi Lopez, egun entrenatzaile moduan, Carlos Oliva junioraren aurka arituko da. Gaztea Estatuko txapelduna da bere kategorian, 100 metro bular eran. Bestetik, Estatuko igerilari onenak Majorin izango dira. Horien artean izango da emakumezkoetan iaz txapelduna izan zena, Junkal Irigoien hain zuzen. Atzeritik Ashley Tappin, Martin Pepper eta Chris Brobley estatubatuarak, David Kolozar, Tamas Bathazi, Claudia Barsi eta Marian Fülöp hungariarrak eta Bordeleko Girondins taldeko igerilariak aipatu behar dira.

● San Silbestrea

Urtea amaitu aurretik korri-

ka saioa egiteko aukera izango duzue denok. Izan ere herri ezberdinetan antolatzen diren San Silbestre probak hor izango dituzue. Ordizian gaztetxoek arratsaldeko 5.00etatik aurrera erakutsi beharko dituzte euren doaiak. Helduek, berriz, 6.30etatik aurrera izango dute aukera. Ibilbidea ohikoa izango da, 6 km ingurukoa.

Kirol balantzea

Futbolarekin hasiz, goren mailakoak azkenaurreko postuan daude, gaizki hasi eta burua ezin altxaturik dabilta. Euskal ligaren barruan dauden jubenilak goiko postuei begira dabilta. Bigarren mailako jubenilak, berriz, bere multzoko erdialdean daude. Lehen mailako kadeteak erdialdetik gorantz dabilta eta oheretako mailako infantilak beheko postuetan sartuta. Futbolarekin amaitzeko esan aretoan dabilzan neskak ez direla euren neurrik onena ematen ari eta sailkapenean erdialdetik behera dabilzala.

Saskibaloian, nagusienak

Idazlan eta postal lehiaketa

Urtero bezala, Goiztiri AEK euskaltegiak ikastetxe arteko Eguberrietako idazlan eta postal lehiaketa antolatu du. Bertan, Urdaneta herri-eskola eta Jakintza ikastolako lehen hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko lehenengo zikloko ikasleek hartu dute parte. Lan guztiak ikusgai izango dituzue Barrenan abenduaren 31ra bitartean.

pattal. Denboraldi hasieran eman zuten itxura kaxkarra ahaztu badute ere, neurketak aurrera ezin eramanik dabilta eta sailkapenaren behealdean daude. Neskak, berriz, taula erdian.

Eskubaloian, bigarren mailan jokatzen duen taldea, emaitza nahiko onak lortzen ari da. Multzoko 3 lehenen artean dabil. Amaitzeko, rugbya ere hor dugu. Aurreko ale batean aipatu genizuen bezala, maila ona erakusten ari dira herriko rugbyariak. Zelai berria izateak mesede egin die nonbait eta momentuz partidu bakarra galduz, lehen postuan daude. Dena den, Kakaraldo eta Gernikarekin lehia gogorra izango dute amaierararte. Jubenilak ere partidu bakarra galdu hor dabilta goiko postuetan.

Igeriketa, atletismoa, txirrindularitza, pelota... ere hor daude, denak ere Ordiziak beti izan duen maila hori erakutsiz.

Anti Wiskas memoria

Ekitaldi bitxi honen berri eman beharrean gaude aurreten ere. izan ere aurreko bi urtetan izandako arrakasta ikusita, urtarilaren 3rako antolatu dute egun berezi hau. Eguna anexoan hasiko dute, Harriketarrak, Babatxiki eta Usunbillakoak bertan futbol neurketa jokatze-ko asmoz. Norgehiagokaren ondoren, luncha, gero poteoa herriko kaleetan zehar eta azkenik, Mendizaleak Elkartean bazkaria eguna ongi amaitzeko asmoz.

Aitor Calvillo

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



The Clover School of Languages



Domingo Unanue Pl., 5

☎ 16 20 16

ORDIZIA



**Ikasle, guraso eta goierritar guztiok
opa dizkizute:
URTE BERRI ON!**

ZEGAMA

'Urte Zahar gava, Zegaman bertan pasau eta kitto!'

Horixe da Kultur Etxearen eta herriko tabernarien artean egindako azken bileran guztiok proposatutakoa. Azken urteotako joera herrian bertan gelditzea izan delarik herriko gaztediaren aldetik, gau horretan zerbait berezia egitea edo antolatzea izan da helburua. Lehenengo urtea izanik, Kultur Etxeko Batzordeak hala erabakita, tabernetan zenbait alaigarri utziko dituz jendeak izan ditzan eta tabernarien aldetik ere sorpresaren bat izango omen dugu. Beraz, jakin nahi duenak badaki zer egin!

Orkatza abesbatzaren abenduak uzta oparoa

1997. urteari amaiera emanez, Orkatz abesbatza elkarte osatzen dutenek badute bai zertaz gustora egon. Urtean zehar eginiko emanaldi ugari eta garrantzitsuen ondotik (Asturias, Silos eta Bartzelonako emanaldiak besteak beste) abendu honetan ere kontzertu ezberdinak ematen ari baitira.



Kultur Etxeko Batzordeak eta herriko tabernariak, zegamarrek Urte Zahar gava herrian bertan pasatzeko, ahalegin berezia egin dute.

Orkatz-Txiki haur abesbatza abenduaren 14an Zumaiian izan zen, bertako San Pedro-Txiki eta Legazpiko Elusta abesbatzekin batera kontzertua eskainiz, uztailan Zegaman ospatu zen jaialdiaren ondorena hain zuzen.

Bestalde, bi abesbatzek (Orkatz-Txiki eta Orkatz, azken hau ahots nahasiena) gabon kantuz osatutako egitaraua eskainiz beste zenbait emanaldietan ere aritu dira, Agurainen (abenduak

19) eta Alegin (abenduak 20). Azkenik, abenduaren 28an Zegaman bertan ospatu den XIII. Eguberri jaialdia izan dute helmuga, aurtengoan Orkatz nagusien X. urteurrena bete dela gogoratuz, abeslari ohi denak bildu dituen ikuskizunean, herrian honezkero Gabon jaietan errotua eta ohikoa dena.

Ekinza hauekin batera, urteroko legez, Segura nahiz Beasaingo Zaharren egoitzetara egin zuten bisi-

ta. Olentzero egunean bildutakoarekin bertakoei oparirxo bana eskuratzeaz gain, gabon kantuz arratsalde bat elkarrekin igarotzera. Bestalde, egun hauetako elizkizunetan ere parte hartu dute, Eguberri egunean eta Urteberri egunean ere parte hartuko dute.

Gainera aipatu behar, herriko elkarte nahiz Orkatzeko abeslari ohi eta bazkide diren guztien artean, Orkatz abesbatza elkarteak banatu duen 'Euskal Kantak' izeneko liburuxka, 55 abesti ezagun biltzen dituen, famili nahiz lagunarteko mahai ondorenetan erabiltzeko oso egokia gerta daitekeena.

Ikusten denez, gure herriko talde honen iharduera bizi-bizirik dago eta aurrera begira ere, asmo berri ugari dituzte. Beraz, badakizu abestea gustoko baldin baduzu hor dago zure aukera, edonor, txiki nahiz heldu, poz handiz hartuko dutela aurreratu baitigute.

Edurne Albizu

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

LOPETEGI


AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

**Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14**

**☎ 88 21 74
☎ 65 11 17**

**BERSAIN
TOLOSA**



X ENKIEGI
ETXE-AROKINTZA

**Diseinuak neurritan
Larunbat arratsalde irekita**

Erakusketako eta faxa: 889113 - mugikorra: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**



*Gabon zoriontsuak
eta Urteberri on!*

BASAKANA

**ITURRIOZ, 11
BEASAIN**

SEGURA

Zulaketa bakoitzeko aztarnaren bat



Hermanoneko baratzean azaldu den harresia.

Hermanoneko baratzea deitzen den gunean, lehen txulone eta xoxone ziren lekuan, Aranzadikoek zerkalde alde-tik egin duten zulaketan, 1,75 metroko zabalerako harresia aurkitu dute lurretik 30en bat zma. Harresiaren bi aldeak harlandu ederra dute eta barruko aldea harri txikiagoz osatua dago. Harresi hau Abellanoneko baratzean aurkitu dutenaren segidakoa da eta gaur egungo etxeak baino 2-3 metro barruagotik doa. Zurbanoneko baratzean egindako zulaketan, etxe edo tailerrak izan zitezkeen egiturak aurkitu dituzte, baina momentuz harresiaren aztarnarik ez. Zurbanonekoa bukatu ondoren arboladian dira hastekoak.

Futbola

Azken emaitzak: Erreji-onalak: Segura 1-1 Anaitasuna. **Jubenilak:** Zumaiako 2-1 Segura. **Kadeteak:** suspenditua. **Infantilak:** Urki 2-2 Aizkorri. Urtarrilaren 11 arte ez da futbolik izango.

Labur labur

● San Sebastiandik Kaleguenerako **argiteria berri-tzeko lanak** hasi dituzte. 2. fase batean, Madalenatik Jermanenerakoak eta ondoren herri barrukoak berri-tuko dituzte.

● **Iñaxio Imaz** erremontelaria, Ezkurrarekin batera erremonte txapelketako finalera

bidean zen finalaurreko lehenengo partidua irabazi ondoren.

● Abendua-ren 20an Tolo-sako Gabon periko bertako produktuen txapelketan **E u g e n i o Elorzak** jaso

zuen ezirik onenaren saria, 2. aldiz jarraian.

● Udalaren inizatibaz, Gernika bonbardatu zuteneko 60. urteurrena izanik, **Gerni-kako haritzaren aldaska** landatu zen Zurbanoneko jardinean abenduaren 21ean.

● Abenduaren 26an kaleratu zituen **Elorri K. E.ak** kontu zaharren liburuska eta iazko Elorri sariketako idazlanak.

● Elorrik antolatutako aste



Kirol eskolarra: Areta futbolearen, abenduaren 19an, mutil alebinen taldea finalerdietarako sailkatu zen Idiazabal, Ordizia-ko Jakintzakoei 11-3 irabazi ondoren. Finalerdia gabonak ondoren jokatu dute. Abenduaren 14an Bera-beran izandako kro-sean, mutil alebinetan, 200 korrikalari ingurutatik 7. geratu zen Eneko Agirrezabal.

kulturalaren barne, abenduaren 29an, 19:30etan **Pello Zabala**ren hitzaldia izango da Kultur Etxean, meteorolo-giaz, iragarpenez, tenporez, etab.

● **Segurako errealezaleek,**

urtarrilaren 18an Errealak Santanderren duen partidurako autobusa antolatu nahi dute. Izen ematea abenduaren 30erako. Prezioa: 1.500 pezeta.

Joseba Telleria

Gabonak

Kantu, anda eta gabon apaingarrien txapelketa: abenduaren 21ean izan ziren txapelketak eta sari banaketak. **Kantua:** 1go 11 urteko 6. mailakoak geratu ziren, 2. 9 urteko 4. mailakoak eta 3. 6 urteko 1gokoak. **Andak:** 1go 10 urteko 5. mailakoak ("Segurako Olentzero Txanbolinpen" andarekin). 2. 11 urteko 6. mailakoak eta 3. 13 urteko DBHko 2. mailakoak. Guztira 6 anda aurkeztu ziren. **Gabon apaingarriak:** Eskaparteetan, Beheko Alkilerreko Juan Migel Larreak jaso zuen lehen saria. Barruko apaingarrietan, berriz, Jermaneneko Miren Imazek.

Segura irratia: abenduaren 22an hasi zuten gabonetako programazio bereziak, urtarrila-ren 5era arte iraungo du, egunero, goizeko 11:05etatik 11:30etara. Bertan parte hartuz hainbat opari eder eskuratzeko aukera izango da. Urte zahar goizean, Jose Juan Castillo sukaldaria izango da eta egun horretarako afari apropos bat proposatuko du. Urtarrilaren 31n mihura oparitzeak Katalunian duen esanahiaz mintzatuko dira kataluniar batekin. 31ko arratsaldean zehar, opariak zozketatuko dira, umore txispa duten gonbidatuak izango dira eta M^a Jose Bermejo igarle urretxuarrak, 1998 nolakoa datorren esango du.

Urte zahar eguna: Segurako Mendi Elkartek antolatuta, goizeko 8:30etan plazatik irtenda, urteroko mendi irteera egingo da Aizkorri. Herritar guztiak gonbidatuak daude. **17:00etan** buruhandi eta erraldoiak izango dira. **18:30etatik aurrera,** Elorri elkarteak antolatuta, herriko talogileek egindako talo jatea.

Kabalgata: herriko talde baten inizatibaz, 2. kabalgata berritua egingo da urtarrilaren 5ean. Iaz, Bolalekutik Portikoperako ibilbidea egin bazuten ere, aurtengoan garai batean egiten zen ibilbide bera egiteko asmoa dute. **17:30etan** Madalenatik irtenda, Kale Nagusia igo eta kaleguenetik bueltan Txanbolinpera joango dira, Herodesek antzezpena egingo duen lekura. Erdiko Kalea jaitzita Bolaleku zeharkatuz, Kale Nagusitik Portikopean jarriko duten Belengo estalpera ondoren. Bertan, errege magoak eta hauen laguntzaileak, gutunak jaso eta opariak banatuko dituzte. Ondoren, Ospitalekoiei eta komentuko moiei bixita egitera joango dira. Ibilbideaz gain, aurtengo-rako berrikuntza nagusia, 3 erregeentzat egin diren kapa berriak izango dira. Iaz bezala, Kaleko argiak itzalduko dira foko bereziak piz-tuz. Megafonia jarriko dute ekitaldiaren azal-penak emateko eta musika jartzeko.

ORDIZIAKO ESKUBALOI TALDEAK ANTOLATUTA

Goi-mailako emakumezkoen eskubaloia Ordizian, urtarilaren 3tik 5era

Ordiziako Eskubaloi Taldeak antolaturik, aurtan ere emakumezkoen goi-mailako eskubaloia ikusteko aukera izango da 1998ko urtearen lehenengo egunetan. VII. Erregeetako Torneo - IV. Txeru Memoriale txapelketako jokatu da.

Ordiziako Eskubaloi Taldeak desafio berri bati egingo dio aurre urtea hastearekin batera, "geuretzat gero eta garrantzitsuagoa den desafio", diote ordiziarrek, hain zuzen ere, emakumezkoen goi-mailako txapelketa. Duela zazpi hartu zuen Eskubaloi Taldeak eskubaloia sustatzeko konpromezua, jakin bai bazekiten Ordizian kirol honenga-



Majori kiroldegian, aurtan ere, goi mailako eskubaloia ikusteko aukera izango da.

nako zaletasunik bazegoela. Hori dela eta, Erregeetako Torneo izenarekin hasi zen eta orain Jesus Mari Caro 'Txeruren' Omenezko Memoriale izena hartu du. Hasiaran gizonezkoen mailan bakarrik; gaur egun emakumezkoen talderik garntzitsuenak ere Ordizian izaten dira. Gauzak honela, Ordiziako Kiroldegian nazioarteko goi-mailako taldeak izan dira. Hala nola, Moskuko C.S.K.A., Leongo Ademar, eta urrutirago joan gabe, Elgorriaga Bidasoa.

Aurtengo ediziorako, egutegiak eta nazioarteko konpromezuek uzten duten neurrian, emakumezkoen mailarik goreneneko torneo antolatzea lortu da. Oheretako Mailako 7 talde izango dira, horietarik bi frantziarrak: Bordeleko Bouillargues eta Nimeseko Merignac. Euskadiko neskez osatutako konbinatua izango da hirugarren taldea. Bertan, Ruth Carrillo ordiziarra arituko da. Gainerako taldeak, Corte Blanco Bidebieta, Caja Cantabria, Club

Balonmano Porriño eta Agrupacion Deportiva Sagardia izango dira.

Ligaxka eran jokatu dute. Urtarrilaren 3an, larunbatean, goizeko 10.30etan, Juventud Leganese Euskadiko konbinatuaren aurkako jokatu dute. 12.30etan, Balonmano Porriño Motorola Radiophoneren aurka arituko da. Arratsaldean, 4.30etan, Caja Cantabria Universidad Bouillarguesen aurka; eta 6.30etan, Corte Blanco Bidebieta Merignacen aurka.

Urtarrilaren 4an txandakatu egingo dira taldeak. Goizez 10.30etan eta 12.30etan eta arratsaldeko 4.30etan 6.30etan izango dira partiduak. Finalerdiak eta finalak Errege egun bezperan, jokatu dira. Finalerdia 10.30etan eta finala 12.30etan. Partidu guztiak Majori kiroldegian jokatu dira.



TXINDOKI TABERNA



✕ Pintxo bereziak

✕ Ogitartekoak

✕ Plater konbinatuak



✕ Eguneroko

menua

✕ Karta

✕ Ospakizunetarako

☎ 88 40 49

Etxezarreta, 3

ORDIZIA

Goierriko bertsolari taldekoen umorezko biografia

Bertsolari aldizkariak 'Goierriko taldea' izenburuarekin kaleratu du bere azken alea. Florentino Goiburu, Patxi Iraola, Eugenio Igartzabal, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal, Xabier Zeberio eta Juan Inazio Begiristain bertsolariek osatzen duten taldeari buruzkoa, hain zuzen ere. Bakoitzaren biografia txiki bat, eta aldi berean, Goierriren historiako hainbat pasarte kontatzen dira. Guztia, bertsolarien hizkera umoretsuan kontatua.

1986an IZ diskoetxeak Goierriko Bertsolarien Diskoa eman zuen argitaratu. Disko hori prestatzeko hasi ziren biltzen. Lazkao Txiki bera ere tartean zen hasiera hartan. Geroztik taldeak ibilbide luzea egin du, azken honetan motelduxerik badago ere. Hala ere, aurtengo Txapelketa Nagusia

zela eta Gaintzan bildu izan dira.

Joxean Agirre kazetariak egin dizkie elkarrizketak 7 protagonistei. Umetako, gaztetako eta helduagoko kontuak azaltzen dira bertan. Guztiak ere, umorea oinarri hartuta, bitxikeria edo anekdota ugariz beteak. Agirrek bereak adierazi digunez, "batetik, biografia txiki bat osatu da; eta bestetik, Goierriren historiako hainbat zati kontatzen dituzte".

Talde bezala nolatan elkartu ziren, ez dago oso argi. "Arraroa da bi belaunaldi elkartzen direla: gerraondorengo gosea pasatutakoak dira Iraola eta Goiburu, eta gero transizioak. Transizio garaiko belaunaldi garrantzitsuena Murua-Mendizabal-Igartzabal hirukotea izan da". Lazkao Txiki taldeko partaide baina gehiago maisu izan da, Agirrerren esanetan.



Guztiak ere etxetik eta familiatik jaso dute bertsoetarako zaletasuna eta bertsoak osatzeko abilitasuna. Iraolak anaiarekin eta amarekin egiten zuen punttuka. Goiburuk Urbian ikasi zuen bertsotan. Igartzabalek aitarengatik ikasi zuen. Muruak aita ere erdi-bertsolaria zuen. Mendizabal bertso-liburu batetik liluratu eta Igartzabalek eta Muruak "enkarrilatu" zuten. Begiristain 12-13 urterako bertsoa osatzeko gai zen.

Bitxikeriak

Bitxikeriak ugari dira aldizkarian zehar. Goiburu eta Iraola, adin berekoak izanda, soldaduska batera egin baina Ordizian izan bertso saio batean Iraolak jartzen

zuen arretarengatik konturatu zen Iraola bertsolaria izango zela. Igartzabalen ama telebistaren aurrean orraztu gabe ez omen sekula jartzen, "nik haiek ikusten baiditut, zergatik ez naute haiek ni

ikusiko?" argumentuarekin. Muruak ilea lisatzeko edo nerbioak lasaitzeko egiten zituenak kontatzen ditu, baita kaltzioa hartzeko amak "irratian entzun" zuen errezeta. Mendizabalek bere auzoko mutil bat (Xabier Zeberio) bertsotan entzun lehenengo aldia go-goan du. Zeberioak apaizak 12.000etako kanpaiak jotzeko eskatu eta herri guztia aztoratu zutenekoa kontatzen du. Eta Begiristainek bertso saio bat berak bakarrik egin zueneko.

Bertsolari aldizkaria Lazkao Gerriko liburudendan dago sailgai. Eta harpide egin nahi izanez gero, aldizkari honetan bertan duzue harpide-txartela.

AMONANE

★
Nagusia, 30
ORDIZIA



- ✓ Ileapaindegia
- ✓ Edergintza
- ✓ Solariuma

Eguberrietarako:

- bisuteri frantsesa
- itxura aldaketa

Teknika berria

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Nafarroa Etorbidea, 37

☎ 88 02 97

BEASAIN



BIÑASPRE

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

Opariak
Gabonak 97

K. Nagusia, 8

☎ 88 13 37

ORDIZIA

KISKÁ

PUB

Zorionak eta Urte Berri on!

Santa Maria

ORDIZIA



1968ko gabon eskea Seguran

1968ko abenduaren 24ko argazkia da. Gabon eskean, Beheko kurutzako iturri ondoan.

Ezkerretik hasita: Peio Imaz, Mikel Huerta, Jose Ignazio Imaz, Jose Ignazio Goikoetxea, Jose Manuel Huerta, Julian Arrondo eta Ramon Arrue.



HARPIDETZA TXARTELA

EGIN ZAITEZ HARPIDE

Izen deiturak _____

Helbidea _____

Herria _____ Telefonoa _____

Herrialdea _____

Banku/Aurrezki/Kutxa _____

Sukurtsala _____

Kontuaren zenbakia _____

SINADURA →



BIDALTZEKO

BERTSOLARI
ALDIZKARIA

Madrid Ibilbidea, 6 - DONOSTIA
Telefonoa (943) 47 11 42

1998ko harpidetza (4 ale)
2.800 pezeta (Aurreko 8 aleak
erregalo bidaliko zaizkizu)

WALT DISNEY Pictures
presents

HERCULES



© DISNEY

URTARRILLAK
5
ARTE

Pelikulatako Jostailuak

PRYCA